



Ikuspegi komuna, baterako jarduketa: Europa indartsuagoa

Estrategia Globala
Europar Batasunaren Kanpo- eta Segurtasun-
politikarako

EuroBasque

Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua

Consejo Vasco del Movimiento Europeo

www.eurobasque.eus



EuroBasque

Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua

Consejo Vasco del Movimiento Europeo

www.eurobasque.eus

Ikuspegi komuna, baterako jarduketa: Europa indartsuagoa

Estrategia Globala
Europar Batasunaren Kanpo- eta Segurtasun-
politikarako





—2016ko ekaina—



Hitzaurrea Federica Mogherinik idatzi du	03
Laburpen exekutiboa	07
Estrategia Globala Europar Batasunaren Kanpo- eta Segurtasun-politikarako: Ikuspegi komuna, baterako jarduketa: Europa indartsuagoa”	13
1. Herritarren interesak sustatzeko estrategia globala	13
2. Gure kanpo-ekintza gidatzen duten printzipioak	16
3. Gure kanpo-ekintzaren lehentasunak	18
3.1 Batasunaren segurtasuna	18
3.2 Estatu- eta gizarte-erresilientzia gure ekialdean eta hegoaldean	23
3.3 Ikuspegi bateratua gatazken eta krisialdien inguruan	28
3.4 Eskualde-mailako Lankidetzaren ordenak	32
3.5 Gobernantza globala XXI. menderako	39
4. Ikuspegitik ekintzara	44
Esker-onak	53

Hitzaurrea Federica Mogherinik idatzi du

Batasuneko atzerri-
eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkaria
eta Europako Batzordeko presidenteordea



Zalantzan jartzen ari da Europar Batasunaren helburua, baita bere existentzia ere. Hala eta guztiz ere, herritarrek zein munduak inoiz baino Europar Batasun indartsuagoa behar dute. Gure lurraldea ezegonkorragoa eta arriskutsuagoa da. Gure mugen barruko zein kanpoko krisiek herritarren bizitzeari eragiten diete zuzenean. Garai zailetan, batasun indartsuagoa estrategikoki pentsatzen duena da, ikuspegi bat partekatzen duena eta elkarrekin jarduten duena. Hauxe are egiazkoagoa da Britainia Handiko erreferendumaren ostean. Izan ere, batasunaren funtzionamendua berraztertu beharko dugu, baina oso ondo dakigu zertarako lan egiten dugun. Badakigu zeintzuk diren gure printzipioak, interesak eta lehentasunak. Hauxe ez da ziurgabetasunerako momentua: batasunak estrategia bat behar du. Ekintza partekatua behar dugu, baita ekintza komuna ere.

Gure herrialdeek ez dute indar edo baliabide nahikorik mehatxu hauei eta egungo aukerei bakar-bakarrik aurre egiteko. Baina ia-ia bilioi erdi herritar biltzen dituen batasun gisa, gure potentziala paregabea da. Gure diplomazia-sarea mundu osoan zehar zabaltzen da. Ekonomiari erreparatuz, munduko G3an gaude. Merkataritza-kide nagusia gara eta atzerriko inbertsiogile nagusia ia-ia mundu osoko herrialde guztientzat. Elkarrekin, munduko gainerako leku guztiek baino gehiago inbertitzen dugu garapenerako lankidetzan. Hala ere, horrez gain, oso argi dago, oraindik ere, ez dugula potentzial hori erabat baliatzen. Herritar gehienek uste dute erantzukizun kolektiboa hartu behar dugula munduan dugun rolari dagokionez. Eta, edonora bidaiatzen dudala, bertako kideek Europar Batasunak rol handiagoa izatea espero dute, baita segurtasun-hornitzaile global gisa ere. Soilik izango gara gai herritarren premiak asetzeko eta lankidetzak arrakastatsuak ezartzeko denok batera jarduten badugu,

elkarrekin. Hain zuzen ere, hori da estrategia globalaren xedea batasuneko atzerri- eta segurtasun-politikarako.

“Globala” hitza ez da soilik zentzu geografiko batean erabiltzen: estrategiak sustatzen dituen tresna eta politiken aukera zabalari ere egiten dio erreferentzia. Gaitasun militarretan eta terrorismoaren aurkako borrokan zentratzen da, baita enplegu-aukeretan, gizarte inklusiboetan eta giza eskubideetan ere. Bake-erakuntza eta estatuen eta gizarteen erresilientzia jorratzen ditu, bai Europan, bai Europaren inguruan. Europar Batasuna beti egon da bere botere bigunaz harro eta harro egoten jarraituko dugu, onenak garelako eremu honetan. Hala eta guztiz ere, Europa “potentzia zibil” bat besterik ez denaren ideia ez dator bat bilakatzen dagoen errealitatearekin. Adibidez, gaur egun, Europar Batasunak hamazazpi operazio militar eta zibil ditu zabaldua; hau da, milaka gizon eta emakume Europaren banderaren pean zerbitzatzen ari dira bakearen eta segurtasunaren alde, hau da, gure segurtasunaren eta gure kideen segurtasunaren alde. Europarentzat, botere biguna eta gogorra eskutik doaz.

Estrategiak Europar Batasunerako autonomia estrategikoaren handizaletasuna elikatzen du. Hori beharrezkoa da gure herritarren interes komunak sustatzeko, baita gure printzipioak eta balioak sustatzeko ere. Hala ere, jakin badakigu lehentasun horiek hobeto bete daitezkeela bakarrik ez bagaude. Eta hobeto bete daitezke arauetan eta multilateralitatean oinarritutako nazioarteko sistema batean. Hauxe ez da polizia globaletarako eta gudari bakartietarako garaia. Atzerri- eta segurtasun-politikak presio globalak eta tokiko dinamikak kudeatu behar ditu eta superpotentziei zein gero eta zatituago dauden identitateei aurre egin behar die. Batasunak kideak indartzeko lan egingo du: Jarraituko dugu lotura transatlantikoa eta Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundearekiko (NATO) lankidetzak sakontzen eta,aldi berean, eragile berriekiko konexioak bilatuko ditugu eta formatu berriak aztertuko ditugu. Eskualde-ordenetan eta eskualdeen arteko zein eskualdeen barneko lankidetzan inbertituko dugu. Gainera, erreformatutako gobernantza globala bultzatuko dugu, XXI. mendeko erronkei aurre egin diezaiokeena. Printzipioetan oinarritutako modu praktikoa batean jardungo dugu, erantzukizun globalak partekatuz gure kideekin eta bere indarguneetan lagunduz. Ikasbide bat izan dugu: nire ondokoen eta kideen ahuleziak nire ahuleziak ere badira. Hortaz, denontzako onuragarriak diren konponbideetan inbertitu egingo dugu eta nazioarteko politika batura zero den joko bat izan daitekeenaren ilusiotik harago joango gara.

Aurreko guztiak Estatu Kide guztien egoera hobetuko du, baita batasuneko herritar guztiena ere. Aipatutako helburu horiek guztiak soilik lor daitezke benetan elkartutako eta konprometitutako Europa batekin. Eguneroko erronka da kulturak bateratzea partekatutako helburuak lortzeko eta interes komunak erdiesteko baina, erronka izateaz gain, gure indarrak

handiena da: aniztasunak indartsu egiten gaitu.

Bai, gure interesak interes europar komunak dira: horiek gauzatzeko modu bakarra bitarteko komunen bidez da. Horregatik, gure batasuna batasun indartsuagoa bihurtzearen erantzukizun kolektiboa dugu. Europako herritarrek Estatu Kideen arteko helburu-batasuna behar dute, baita gure politiken ekintza-batasuna ere.

Mundu hauskor honek beregan konfiantza duen Europar Batasun arduratsua behar du; egungo munduak Kanpo- eta Segurtasun-politika europar irekia eta aurrerakoia eskatzen du. Estrategia global honek gure eguneroko lanean gidatuko gaitu, herritarren premiak, itxaropenak eta helburuak benetan asetzen dituen batasun baterantz, 70 urteko bakearen arrakastan eraikitako batasun baterantz eta gure lurraldean zein mundu osoan bakean eta segurtasunean laguntzeko indarra duen batasun baterantz.



Federica Mogherini



European Union
Global Strategy

Laburpen exekutiboa

Europa indartsuagoa behar dugu. Hori da herritarrek merezi dutena eta mundu osoak espero duena.

Existentzia-krisiko garaiak bizi ditugu, Europar Batasunaren barruan eta hortik kanpo ere bai. Gure batasuna mehatxupean dago. Proiektu europarrak bake, oparotasun eta demokrazia paregabeak ekarri ditu eta, orain, zalantzan jartzen ari da. Ekialdean, Europako segurtasun-ordena urratu egin da eta terrorismoak eta indarkeriak gogor jotzen dute Afrikako Iparraldean eta Ekialde Ertainean, baita Europan bertan ere. Afrikako leku batzuetan, oraindik ere, hazkunde ekonomikoak ez du demografia gaitzen eta, Asian, segurtasun-tentsioak areagotzen ari dira, klima-aldaketak disrupzio handiagoa eragiten duen bitartean. Hala ere, badaude abagune ikaragarriko momentuak ere bai. Hazkunde globalak, mugikortasunak eta aurrerapen teknologikoak, lankidetzak gero eta sakonagoekin batera, aukera ematen digute aurrera egiteko; horri esker, gainera, pertsona gehiagok dute aukera txirotasunetik ihes egiteko eta bizitza luzeagoak eta askeagoak bizitzeko. Partekatutako interesek, printzipioek eta lehentasunek gidatuta nabigatu egingo dugu mundu zail, konektatuago, borrokatuago eta konplexuago honetatik. Itunetan ezarritako balioetan oinarrituta eta gure bertute ugariak zein lorpen historikoak baliatuz, elkarrekin lan egingo dugu batasun indartsuago baten eraikuntzan, munduan duen paper kolektiboa gauzatuko duena.

1. Partekatutako interesak eta printzipioak

Europar Batasunak bakea sustatuko du eta herritarren zein lurraldearen segurtasuna bermatuko du. Barne- eta kanpo-segurtasuna gero eta lotuago daude: barneko segurtasuna mugez haragoko bakearen menpe dago.

Europar Batasunak herritarren oparotasuna indartuko du. Oparotasuna partekatu behar da; horretarako, beharrezkoa da mundu osoan betetzea Garapen Jasangarrirako Helburuak, European ere bai. Horrekin batera, Europar Batasun oparota lortzeko, beharrezkoa da nazioarteko sistema ekonomiko ireki eta bidezko batean eta mundu osoko ondasun komunitararako sarbide jasangarrian oinarritzea. Europar Batasunak bertako demokrazien erresilientzia bultzatuko du. Gure balioak irmoki betetzeak gure kanpo-sinesgarritasuna eta eragina baldintzatuko ditu.

Europar Batasunak arauetan oinarritutako ordena globala sustatuko du. Adostutako arauak sustatzea interesatzen zaigu, ondasun publiko globalak hornitzeko eta mundu baketsu eta jasangarri baterako laguntzeko. Europar Batasunak arauetan oinarritutako ordena globala sustatuko du; multilateralitatea izango da bere printzipio nagusia eta Nazio Batuak bere nukleoa.

Printzipio argiek gidatuko gaituzte. Printzipio horiek egungo ingurune estrategikoaren ebaluazio errealista batetik eratortzen dira, baita mundu hobe baten lorpenean aurrera egiteko nahi idealista batetik ere. Hurrengo urteetan, printzipioetan oinarritutako pragmatismoak gidatuko du gure kanpo-ekintza.

Mundu konplexuago honetan, elkarturik egon behar dugu. Benetako batasun baten konbinatutako pisuak besterik ez du potentzial nahikoa herritarrei segurtasuna, oparotasuna eta demokrazia eskaintzeko eta munduan alde positiboa eragiteko.

Mundu konektatuago honetan, Europar Batasunak esteeekiko konpromisoa hartuko du. Europar Batasunak ezin du zubi altxagarri bat eraiki kanpo-mehatxuetatik babesteko. Herritarren segurtasuna eta oparotasuna sustatzeko eta demokraziak babesteko, interdependentzia kudeatu egingo dugu, horrek ekartzen ditugun abagune, erronka eta beldur guztiekin, mundu zabalagoa konprometitz.

Mundu borrokatuago honetan, erantzukizunaren sen irmo batek gidatuko du Europar Batasuna. Erantzukizunez konprometitu egingo gara, bai European, bai ekialdeko eta hegoaldeko inguruko eskualdeetan. Maila globalean jardungo dugu, gatazkaren eta txirotasunaren funtsezko arazoak aztertzeko eta giza eskubideak sustatzeko.

Europar Batasuna interes-talde global arduratsua izango da, baina ardura hori partekatu behar da. Ardura horrekin hertsiki lotuta dago kanpo-lankidetzen eguneraketa. Gure helburuak lortzeko, estatuetera, eskualde-mailako erakundeetara eta nazioarteko antolakuntzetara joko dugu.

Bazkide nagusiekin, antzeko pentsamoldeak dituzten herrialdeekin eta eskualde-mailako taldeekin lan egingo dugu. Gizarte zibilarekiko eta sektore pribatuarekiko lankidetzak sakonduko dugu, eragile giltzarriak direlako sareko mundu honetan.

2. Gure kanpo-ekintzaren lehentasunak

Partekatutako interesak sustatzeko, printzipio argietara atxikiz, Europar Batasunak bost lehentasun jarraituko ditu.

Batasunaren segurtasuna. Europar Batasunaren Estrategia Globala etxean bertan hasten da. Batasunak aukera eman die herritarrei segurtasun, demokrazia eta oparotasun paregabeek gozatzeko. Hala ere, gaur egun, terrorismoak, mehatxu hibridoek, hegakortasun ekonomikoak, klima-aldaketak eta energia-ziurgabetasunak arriskuan jartzen dituzte bai herritarrak, bai lurraldea bera. Handizaletasun eta autonomia estrategikoko maila egokia garrantzitsua da Europak bere mugetatik harago bakea eta segurtasuna sustatzeko duen gaitasunerako. Horrenbestez, gure esfortzuak zabalduko ditugu defentsan, zibersegurtasunean, kontraterrorismoan, energian eta komunikazio estrategikoetan. Estatu Kideek itunetan ezarritako elkarri laguntzeko eta solidaritateko konpromisoak ekintza bihurtu behar dituzte. Europar Batasunak Europaren segurtasun kolektiborako ekarpena indartu egingo du, lankidetzan estuan lan eginez bere bazkideekin, OTANekin hasita.

Estatu- eta gizarte-erresilientzia gure ekialdean eta hegoaldean. Gure herritarrentzat, interesgarria da estatuen eta gizarteen erresilientzian inbertitzea, ekialderantz, Asia Zentraleraino hedatuz eta, hegoalderantz, Afrika Zentraleraino. Europar Batasunaren egungo handitze-politikaren pean, baldintza zorrotz eta bidezkoetan oinarritutako batasunera atxikitze prozesu sinesgarria funtsezkoa da Mendebaldeko Balkanetako herrialdeen eta Turkiaren erresilientzia indartze aldera. Europako Auzotasun Politikaren pean, badaude batasunarekiko harreman estuagoak eraiki nahi dituzten asko: gure erakarpen-botere iraunkorrak eraldaketa susta dezake herrialde horietan. Baina erresilientzia lehentasuna ere bada Europako Auzotasun Politikaren barruko beste herrialde batzuetan zein hortik kanpoko herrialdeetan. Europar Batasunak erresilientziarako bide desberdinak babestuko ditu, gobernu, ekonomia, gizarte eta klima/energiarekin lotutako hauskortasun-kasurik larrienei aurre eginez. Horrez gain, migrazio-politika eraginkorragoak garatu egingo ditu Europarentzat zein Europaren bazkideentzat.

Ikuspegi bateratua gatazken inguruan Gatazka oldarkorren ezta partekatutako funtsezko interesak mehatxatzen ditu. Europar Batasuna printzipioetan oinarritutako modu praktiko batean konprometitu egingo da bake-eraikuntzako prozesuan eta, horrez gain, giza segurtasuna sustatu egingo du bateratutako ikuspegi batetik abiatuta. Funtsezkoa da gatazkek eta krisialdiak kudeatzeko ikuspegi zabala ezartzea, zehazki, Europar Batasunak eskuragarri dituen politika guztiak koherentziaz erabiliz. Hala

ere, "ikuspegi zabalaren" esanahia zein irismena hedatu egingo dira. Europar Batasunak gatazka-zikloaren etapa guztietan jardungo du, goiz jardunez prebentzioan, erantzukizunez eta irmoki erantzunez krisialdien aurrean, egonkortzean inbertituz eta deskonexio goiztiarra saihestuz krisi berri batek eztanda egiten duenean.

Europar Batasunak gobernantza-maila desberdinetan jardungo du: Siriakoa edo Libiakoa bezalako gatazkek dimentsio ugari dituzte, tokikoa, nazionala, eskualdekoa eta globala, eta horiek guztiak kudeatu behar dira. Azkenik, guk ezin ditugu gatazka horiek bakarrik konpondu. Bake jasangarria soilik lortu ahalko da nazioarteko zein eskualdeko lankidetzazabal, sakon eta iraunkorretan errotutako hitzarmen zabalaren bidez; Europar Batasunak horiek bultzatu eta babestu egingo ditu.

Eskualde-mailako Lankidetzaz-ordenak. Presio globalen eta tokiko atzerapenaren artean harrapatutako mundu honetan, eskualde-mailako dinamikak nabarmentzen hasi dira. Eskualde-gobernantzako forma boluntarioek estatuei eta pertsoneri eskaintzen diete segurtasun-gaiak hobeto kudeatzeko aukera, baita abagunea ere globalizazioaren etekin ekonomikoak jasotzeko, kulturak eta identitateak askoz zabalago adierazteko eta munduko gaitan eragina proiektatzeko. Aurrekoa Europar Batasunaren XXI. mendeko bakerako eta garapenerako funtsezko oinarri bat da eta, horregatik, hain zuzen ere, mundu osoan babestuko ditugu eskualde-mailako lankidetzaz-ordenak. Eskualde desberdinetan, hau da, Europan, Mediterraneoan, Ekialde Ertainean eta Afrikan, Atlantikoaren iparraldean eta hegoaldean, Asian eta Artikuan, Europar Batasunak berariazko helburuek gidatuta jardungo du.

Gobernantza globala XXI. menderako. Europar Batasunak nazioarteko zuzenbidean oinarritutako ordena globalarekiko konpromisoa du eta horrek giza eskubideak, garapen jasangarria eta ondasun komun globaletarako sarbide iraunkorra bermatzen ditu. Konpromiso hori egungo sistema babestetik harago doa eta eraldatzeko nahi batean gauzatzen da. Europar Batasunak Nazio Batuen Erakunde indartsu baten alde borrokatuko du, arauetan oinarritutako alde anitzeko ordenaren oinarri gisa. Gainera, nazioarteko eta eskualdeko antolakuntzekin, estatuekin eta estatuak ez diren eragileekin koordinatutako erantzun globalak garatuko ditu.

3. Ikuspegitik ekintzara

Aurrera eramango ditugu gure lehentasunak gure sare paregabeak, pisu ekonomikoa eta eskuragarri ditugun tresna guztiak modu koherente batean mugiaraziz. Gure helburuak lortzeko, inbertsio kolektiboa egin behar dugu batasun sinesgarri, sentikor eta koordinatu bat eraikitzeko.

Batasun sinesgarria. Munduarekiko erantzukizuna hartzeko, sinesgarritasuna berebizikoa da. Europar Batasunaren sinesgarritasuna honako guztiaren menpe dago: gure batasuna, gure lorpen ugariak, gure erakartzeko botere iraunkorra, gure politiken eraginkortasuna eta

irmotasuna eta gure balioetarako atxikipena. Horrez gain, batasun indartsuagoa lortzeko, kanpo-politikaren dimentsio guztietan inbertitu beharra dago. Zehazki, premiazkoa da segurtasunean eta defentsan inbertitzea. Espektro osoko defentsa-gaitasunak behar dira kanpoko krisialdiei erantzuteko, bazkideen ahalmenak eraikitzeke eta Europaren segurtasuna bermatzeko.

Estatu Kideek burujabe izaten jarraitzen dute defentsaren inguruko erabakietan: hala eta guztiz ere, gaitasun horietako asko lortzeko eta mantentzeko, defentsaren eremuko lankidetzak arau bihurtu behar da. Europar Batasunak sistematikoki bultzatuko du defentsaren eremuko lankidetzak eta defentsa-industria europar irmoa sortzeko borrokatuko du, berebizikoa baita Europak autonomia izateko, bai erabakiak hartzeko, bai ekintzak abian jartzeko.

Erantzuteko gai den batasuna. Ekintza diplomatikoa erabat oinarritu behar da Lisboako Itunean. Segurtasunerako eta Defentsarako Europako politika (SDEP) harberagoa izan behar da. Estatu Kideen arteko lankidetzak zabaldua esploratu behar da eta horrek lankidetzak-modu egituratuago batera eraman beharko du, Lisboako Itunaren potentziala erabat erabiliz. Halaber, garapen-politika malguagoa izan behar da eta gure lehentasun estrategikoekin lerrokatuta egon behar da.

Batasun koordinatua. Koordinazioa indartu behar dugu kanpo-politikei dagokienez, bai Estatu Kideen eta Europar Batasuneko erakundeen artean, bai politiken barne- eta kanpo-dimentsioen artean. Hori bereziki garrantzitsua da Garapen Jasangarrirako Helburuak ezartzeko, baita migrazioari eta segurtasunari dagokienez ere, batez ere, kontraterrorismoaren eremuan. Era berean, sistematikoki lehenetsi behar ditugu giza eskubideak eta generoarekin lotutako gaiak politika-sektore eta erakunde guztietan.

Estrategia honen oinarria da batasun indartsuago baten ikuspegia eta handizaletasuna, mundu osoan zehar desberdintasun positiboa eragin nahi eta ahal duena. Herritarrek benetako batasuna merezi dute, partekatutako interesak sustatzen dituen, erantzukizunez konprometituz eta beste batzuekiko lankidetzan. Orain, gure esku dago hori ekintza bihurtzea.



Ikuspegi partekatua, ekintza komuna: Europa indartsuagoa

Estrategia Globala Europar Batasunaren Kanpo- eta Segurtasun-politikarako

Europa indartsuagoa behar dugu. Hori da herritarrek merezi dutena eta mundu osoak espero duena. Existentzia-krisiko garaiak bizi ditugu, Europar Batasunaren barruan eta hortik kanpo ere bai. Gure batasuna mehatxupean dago. Proiektu europarrak bake, oparotasun eta demokrazia paregabeak ekarri ditu eta, orain, zalantzan jartzen ari da. Ekialdean, Europako segurtasun-ordena urratu egin da eta terrorismoak eta indarkeriak gogor jotzen dute Afrikako Iparraldean eta Ekialde Ertainean, baita Europan bertan ere. Afrikako leku batzuetan, oraindik ere, hazkunde ekonomikoak ez du demografia gaintitzen eta, Asian, segurtasun-tentsioak areagotzen ari dira, klima-aldaketak disruptzio handiagoa eragiten duen bitartean. Hala ere, badaude abagune ikaragarriko momentuak ere bai. Hazkunde globalak, mugikortasunak eta aurrerapen teknologikoak, lankidetzak gero eta sakonagoekin batera, aukera ematen digute aurrera egiteko; horri esker, gainera, pertsona gehiagok dute aukera txirotasunetik ihes egiteko eta bizitza luzeagoak eta askeagoak bizitzeko. Partekatutako interesek, printzipioek eta lehentasunek gidatuta nabigatu egingo dugu mundu zail, konektatuago, borrokatuago eta konplexuago honetatik. Itunetan ezarritako balioetan oinarrituta eta gure bertute ugariak zein lorpen historikoak baliatuz, elkarrekin lan egingo dugu batasun indartsuago baten eraikuntzan, munduan duen paper kolektiboa gauzatuko duena.

1. Herritarren interesak sustatzeko estrategia globala

Gure interesak eta balioak eskutik doaz. Gure balioak mundu osoan sustatu nahi ditugu. Aldi berean, gure funtsezko balioak gure interesetan errotuta daude. Bakea eta segurtasuna, oparotasuna, demokrazia eta arauetan oinarritutako ordena globala dira gure kanpo-ekintza eusten duten funtsezko interesak.

“Gure interesak eta balioak eskutik doaz. Gure balioak mundu osoan sustatu nahi ditugu. Aldi berean, gure funtsezko balioak gure interesetan errotuta daude.”

Bakea eta segurtasuna

Europar Batasunak bakea sustatuko du eta herritarren zein lurraldearen segurtasuna bermatuko du. Horrek esan nahi du, Europarrek, beste bazkide batzuekin elkarlanean, beharrezko gaitasunak izan behar dituztela bere burua defendatzeko eta itunetan ezarritako elkarri laguntzeko eta solidaritateko konpromisoak betetzeko.

“Europarrek, beste bazkide batzuekin elkarlanean, beharrezko gaitasunak izan behar dituzte bere burua defendatzeko eta itunetan ezarritako elkarri laguntzeko eta solidaritateko konpromisoak betetzeko. Barne- eta kanpo-segurtasuna gero eta lotuago daude: barneko segurtasunak gure erkidegoko eta inguruko eskualdeetako bakearen gaineko interes paraleloa dakar.”

Barne- eta kanpo-segurtasuna gero eta lotuago daude: barneko segurtasunak gure erkidegoko eta inguruko eskualdeetako bakearen gaineko interes paraleloa dakar. Berekin dakar interes handiagoa gatazkak prebenitzeko, gizakion segurtasuna sustatzeko, ezegonkortasunaren erroko arrazoiak aztertzeko eta mundu seguruago bat lortzeko lan egiteko.

Oparotasuna

Europar Batasunak herritarren oparotasuna indartuko du. Horrek esan nahi du hazkundera, enplegua, berdintasuna eta ingurumen segurua eta osasuntsua bultzatuko direla. Europar Batasuna oparoa izatea oinarrizkoa da, munduan, Europa indartsuagoa izan dadin, baina oparotasun hori partekatu behar da. Horretarako, mundu osoan bete behar dira Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH), European ere bai. Gainera, kontuan hartuta aurreikusten dela munduko hazkunde gehiena, etorkizun hurbilean, Europar Batasunetik kanpo emango dela, merkataritzak eta inbertsioak gero eta gehiago eutsiko dute gure oparotasuna:

Europar Batasuna oparoa izateko, barne-merkatu indartsua eta nazioarteko sistema ekonomiko irekia behar dira. Bidezko merkatu irekiak interesatzen zaizkigu; munduko ekonomia- eta ingurumen-arauen ezarpenean parte hartu nahi dugu eta ondasun komun globaletarako sarbide jasangarria bermatu nahi dugu, itsaso-, lur-, aire- eta espazio-ibilbide irekien bitartez. Iraultza digitala kontuan hartuta, oparotasuna informazio-fluxu askearen eta doako Internet seguru batek erraztutako balio-kate globalen menpe ere badago.

Demokrazia

Europar Batasunak bertako demokrazien erresilientzia bultzatuko du eta batasunaren sorkuntza eta garapena inspiratu dituzten balioak errespetatuko ditu. Horien barruan sartzen dira giza eskubideekiko errespetua eta horien sustapena, funtsezko askatasunak eta zuzenbide-estatua. Barne hartzen dituzte justizia, solidaritatea, berdintasuna, diskriminaziorik eza, pluralismoa eta aniztasunarekiko errespetua. Batasunean gure balioak irmoki betetzeak gure kanpo-sinesgarritasuna eta eragina baldintzatuko ditu.

“Batasunean gure balioak irmoki betetzeak gure kanpo-sinesgarritasuna eta eragina baldintzatuko ditu.”

Demokrazien kalitatea bermatze aldera, errespetatu egingo dugu herrialde bakoitzeko, Europako eta nazioarteko zuzenbidea esfera guztietan, migrazio eta asilotik energia, kontraterrorismo eta merkataritza-raino. Gure balioekiko fidelak izatea, etika- eta identitate-kontua izateaz gain, zuzenbide-kontua ere bada.

Arauetan oinarritutako ordena globala

Europar Batasunak arauetan oinarritutako ordena globala sustatuko du; multilateralitatea izango da bere printzipio nagusia eta Nazio Batuak bere nukleoa. Tamaina ertain eta txikiko herrialdeak dituen batasun gisa, denok partekatzen dugu munduari elkarrekin aurre egiteko interes europarra. Gure pisu konbinatuaren bidez, adostutako arauak sustatu ditzakegu, botere-politikak eusteko eta mundu baketsu, bidezko eta oparo bat lortzen laguntzeko.

“Tamaina ertain eta txikiko herrialdeak dituen batasun gisa, denok partekatzen dugu munduari elkarrekin aurre egiteko interes europarra.”

Iraneko akordio nuklearra horren adibide argia da. Nazioarteko zuzenbidean oinarritutako, Nazio Batuen Gutunaren eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren printzipioak barne hartuta, alde anitzeko ordena barne- zein kanpo-bakerako eta segurtasunerako berme bakarra da.

Arauetan oinarritutako ordena globalak batasun oparo baten potentzial osoa askatzen du, ekonomia irekiak eta konexio global sakonak izango dituen. Horrez gain, ordena horrek balio demokratikoak txertatzen ditu nazioarteko sisteman.

2. Gure kanpo-ekintza gidatzen duten printzipioak

Printzipio argiek gidatuko gaituzte. Printzipio horiek ingurune estrategikoaren ebaluazio errealista batetik eratorritzen dira, baita mundu hobe baten lorpenean aurrera egiteko nahi idealista batetik ere. Isolazionismoaren Eszilaren eta presazko esku-hartzearen Karibdisen arteko mapa sortzerakoan, Europar Batasunak mundua inplikatu du, besteekiko erantzukizuna erakutsiz eta kontinentziarekiko sentikortasuna adieraziz.

“Hurrengo urteetan, printzipioetan oinarritutako pragmatismoak gidatuko du gure kanpo-ekintza.”

Hurrengo urteetan, printzipioetan oinarritutako pragmatismoak gidatuko du gure kanpo-ekintza.

Batasuna

Botere-aldaketa globalen eta boterearen difusioaren mundu gero eta konplexuago honetan, Europar Batasunak bateratuta jarraitu behar du. Europar gisa bateratzea, erakunde, estatu eta herrien artean, ez da inoiz hain garrantzitsua eta premiazkoa izan. Gure batasuna ez da inoiz hain arrisku handian egon. Elkarrekin, bakarrik jarduten duten edo koordinaziorik ez duten Estatu Kideek soilik baino gehiago lortuko dugu. Ez dago gatazkarik nazio mailako interesen eta Europaren interesen artean.

“Europar gisa bateratzea ez da inoiz hain garrantzitsua eta premiazkoa izan. Ez dago gatazkarik nazio mailako interesen eta Europaren interesen artean. Soilik lortu ahalko ditugu partekatutako interesak elkarrekin bagaude eta elkarrekin jarduten badugu.”

Soilik lortu ahalko ditugu partekatutako interesak elkarrekin bagaude eta elkarrekin jarduten badugu. Benetako batasun baten konbinatutako pisuak besterik ez du potentzial nahikoa herritarrei segurtasuna, oparotasuna eta demokrazia eskaintzeko eta munduan alde positiboa eragiteko. Herritarren interesak hobeto defenda daitezke estatu kideen eta erakundeen arteko helburu-batasunaren bidez.

Horrez gain, garrantzitsua da ekintza-batasuna bultzatzea, zehazki, elkarrekin politika koherenteak ezarriz.

Konpromisoa

Mundu konektatuago honetan, Europar Batasuna zabalduko da eta besteekiko konpromisoak hartuko ditu. Balio-kate globalak, oso azkar hazten ari diren teknologia-aurrerapenak eta migrazio gero eta handiagoa kontuan hartuz, Europar Batasunak erabat parte hartuko du merkatu globalean eta horretan agintzen duten arauen ezarpenean parte hartuko du. Europar Batasunak ezin du zubi altxagarri bat eraiki kanpo-mehatxuetatik babesteko. Mundutik baztertzek konektatutako mundu batek eskaintzen dituen abaguneetatik baztertzen gaitu.

“Europar Batasunak ezin du zubi altxagarri bat eraiki kanpo-mehatxuetatik babesteko. Mundutik baztertzek konektatutako mundu batek eskaintzen dituen abaguneetatik baztertzen gaitu.”

Ingurumen-narriadurak eta baliabide-eskasiak ez dute mugarik, ezta nazioz gaindiko krimenak eta terrorismoak ere. Kanpo-dimentsioa ezin da barne-dimentsiotik bereizi. Izan ere, maiz, barne-politikek kanpo-dinamiken ondorioak baino ez dituzte kudeatzen. Interdependentzia kudeatu egingo dugu, horrek ekartzen dituen abagune, erronka eta beldur guztiekin, hain zuzen ere, mundu zabalagoan bertan eta mundu zabalagoarekin konprometituz.

Erantzukizuna

Mundu borrokatuago honetan, erantzukizunaren sen irmo batek gidatuko du Europar Batasuna. Ez dago hagaxka magikorik krisialdiak konpontzeko: ez dago errezeta magikorik konponbideak inposatzeko beste leku batzuetan. Hala eta guztiz ere, konpromiso arduratsuak aldaketa positiboa eragin dezake.

“Erantzukizuna hartuko dugu, nagusiki, Europan eta inguruko eskualdeetan, harago berariazko konpromisoa bilatzen dugun bitartean. Maila globalean jardungo dugu, gatazkaren eta

txirotasunaren funtsezko arrazoiak aztertzeko eta giza eskubideen banaezintasuna eta unibertsaltasuna defendatzeko.”

Horrenbestez, goiz jardungo dugu gatazka biolentoa prebenitzeko; krisialdiei erantzukizunez eta irmoki erantzuteko gai izateko eta prest egoteko; tokiko akordioak errazteko eta epe luzerako konpromisoak hartzeko. Erantzukizuna hartuko dugu, nagusiki, Europan eta inguruko eskualdeetan, harago berariazko konpromisoa bilatzen dugun bitartean. Maila globalean jardungo dugu, gatazkaren eta txirotasunaren funtsezko arrazoiak aztertzeke eta giza eskubideen banaezintasuna eta unibertsaltasuna defendatzeko.

Lankidetzaz

Europar Batasuna interes-talde global arduratsua izango da, baina ardura hori partekatu behar denez, beharrezkoa da lankidetzaz-hitzarmenetan inbertitzea. Arauetan oinarritutako ordena globalean aurrera egiteko gidatuko gaituen printzipioa erantzunkidetasuna izango da.

“Europar Batasuna interes-talde global arduratsua izango da, baina ardura hori partekatu behar denez, beharrezkoa da lankidetzaz-hitzarmenetan inbertitzea.”

Gure helburuak bilatuz, estatuetera, eskualde-mailako erakundeetara eta nazioarteko antolakuntzetara joko dugu. Bazkide nagusiekin, antzeko pentsamoldeak dituzten herrialdeekin eta eskualde-mailako taldeekin lan egingo dugu. Lankidetzaz selektiboa ezarriko dugu ondasun publiko globalak lortzeko eta erronka komunei aurre egiteko beharrezkoak diren eragileekin. Gizarte zibilarekiko eta sektore pribatuarekiko lankidetzaz sakonduko dugu, eragile giltzarriak direlako sareko mundu honetan. Hori elkarrizketaren eta babesaren bitartez egingo dugu, baina konpromiso-modu berritzaileagoen bidez ere bai.

3. Gure kanpo-ekintzaren lehentasunak

Partekatutako interesak sustatzeko, printzipio argietara atxikiz, bost lehentasun zabal jarraituko ditugu.

3.1 Batasunaren segurtasuna

Europar Batasunaren Estrategia Globala etxean bertan hasten da. Hamarkadetan zehar, batasunak aukera eman die herritarrei segurtasun, demokrazia eta oparotasun paregabeaz gozatzeko. Hurrengo urteetan,

lorpen horietan oinarrituko gara. Hala ere, gaur egun, terrorismoak, mehatxu hibridoek, hegakortasun ekonomikoak, klima-aldaketak eta energia-ziurgabetasunak arriskuan jartzen dituzte bai herritarrak, bai lurraldea bera.

“Europar Batasunaren Estrategia Globala etxean bertan hasten da. Orain arte lortutakoa zaintzeko eta garatzeko, funtsezkoa da erabateko aldaketa bat egitea. Elkarri laguntzeko eta solidaritateko konpromisoak ekintza bihurtu behar ditugu.”

Beldurraren politikak zalantzan jartzen dituzte balio europarrak eta Europako bizimodua. Orain arte lortutakoa zaintzeko eta garatzeko, funtsezkoa da erabateko aldaketa bat egitea. Segurtasuna bermatzeko, oparotasuna sustatzeko eta demokraziak babesteko, segurtasunean eta defentsan indartuko gara, giza eskubideak eta zuzenbide-estatua erabat betez. Elkarri laguntzeko eta solidaritateko konpromisoak ekintza bihurtu behar ditugu eta gehiago lagundu behar dugu Europako segurtasun kolektiboa lortzen, zehazki, bost ekintza-ildoren bitartez.

Segurtasuna eta defentsa

Europar gisa, erantzukizun handiagoa hartu behar dugu gure segurtasunari dagokionez. Prest egon behar gara eta gai izan behar gara kanpo-mehatxuen aurrean erantzuteko, babesteko eta horiek eragozteko. OTAN bere kideak kanpo-erasoetatik defendatzeko existitzen da eta kide gehienak europarrak dira.

“Europar gisa, erantzukizun handiagoa hartu behar dugu gure segurtasunari dagokionez. Prest egon behar gara eta gai izan behar gara kanpo-mehatxuen aurrean erantzuteko, babesteko eta horiek eragozteko.”

Ildo horretatik, europarrek ere ekipamendu, prestakuntza eta antolakuntza hobeak behar dituzte esfortzu kolektibo horietan irmoki laguntzeko, baita beharrezkoa bada eta beharrezkoa denean modu autonomoan jarduteko ere. Handizaletasun eta autonomia estrategikoko maila egokia garrantzitsua da Europak bere mugen barruan eta horietatik harago bakea eta segurtasuna sustatzeko duen gaitasunerako.

Europako herritarrak gai izan behar dira Europa babesteko, kanpo-krisialdiei erantzuteko eta gure kideen segurtasun- eta defentsa-gaitasunen garapenean laguntzeko, eginkizun horiek beste batzuekiko elkarlanean burutuz. Kanpo-krisialdien kudeaketarekin eta gaitasunen

garapenarekin batera, Europar Batasuna gai izan beharko litzateke, eskatzen dutenean, Estatu Kideak eta horietako erakundeak babesten laguntzeko.

Horrek esan nahi du elkarri laguntzeko eta solidaritateko konpromisoak bete beharko ditugula eta erronkei barne- zein kanpo-dimentsioarekin aurre egin beharko diegula. Hauek izan daitezke erronka horietako batzuk: terrorismoa; mehatxu hibridoak; zibersegurtasuna eta energia-segurtasuna; antolatutako krimena eta kanpo-mugen kudeaketa. Adibidez, Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politikaren misioetarako eta operazioetarako, Mugak eta Kostaldeak Zaintzeko Europako Agentziarekin eta Europar Batasuneko espezializatutako agentziekin lan egin daiteke, mugen babesa indartzeko eta itsaso-segurtasuna hobetzeko, betiere bizitza gehiago salbatzeko, mugaz gaindiko krimenaren aurka egiteko eta kontrabando-sareak eteteko.

Defentsa kolektiboari dagokionez, OTAN da Estatu Kide gehienentzako esparru nagusia. Aldi berean, Europar Batasunaren eta OTANen arteko harremanek ez dute zertan kaltetu OTAN ez dauden estatu kideen segurtasun- eta defentsa-politika. Horrenbestez, Europar Batasunak Ipar Atlantikoko Aliantzarekiko lankidetzak sakonduko du, erakunde-esparruarekiko, inklusioarekiko eta bien erabakiak hartzeko autonomiarekiko erabateko errespetuan, sinergian eta osagarritasunean oinarrituta.

“Europar Batasuna segurtasun-erkidego gisa indartu behar da: Europako segurtasun- eta defentsa-esfortzuek aukera eman beharko diote Europar Batasunari modu autonomoan jarduteko eta, aldi berean, OTANekiko lankidetzan ekintzak burutzeko eta horri laguntzeko.”

Testuinguru honetan, Europar Batasuna segurtasun-erkidego gisa indartu behar da: Europako segurtasun- eta defentsa-esfortzuek aukera eman beharko diote Europar Batasunari modu autonomoan jarduteko eta, aldi berean, OTANekiko lankidetzan ekintzak burutzeko eta horri laguntzeko. Berebizikoa da Europako defentsa sinesgarriagoa izatea, hain zuzen ere, Estatu Batuekiko lankidetzak transatlantikoa hobe izan dadin.

Estatu Kideek modu autonomoan jarduteko ahalmena bermatzen duten gaitasunak eskuratzeko eta mantentzeko bitarteko teknologikoak eta industrialak behar dituzte. Defentsa-politika eta gastua herrialdeen eskumena diren arren, ez dago gai horietan bakarrik jardun dezakeen Estatu Kiderik: koordinatutako lankidetzak-esfortzua behar da. Defentsa-lankidetzak sakonagoak interoperabilitatea, eraginkortasuna eta konfiantza sorrarazten ditu: defentsa-gastuaren emaitza hobetzen du. Defentsa-

gaitasunak garatzeko eta mantentzeko, beharrezkoa da inbertitzea eta nazio mailako baliabideen erabilera optimizatzea lankidetzaren sakonagoaren bidez.

Europar Batasunak Estatu Kideei lagunduko die eta Europaren segurtasun eta defentsarako ekarpena indartuko du, zehazki, itunei jarraiki. Nazio-mailako defentsa-plangintzen zikloak besteen plangintzetara egokitzeak eta apurka-apurka sinkronizatzeak eta gaitasunak garatzeko jardunbideek Estatu Kideen arteko konbergentzia estrategikoa handi dezakete.

Europar Batasunaren defentsa-ikerketa eta teknologiak zein nazio anitzeko lankidetzak sustatzeko funtsak eta Europako Defentsa Agentziaren potentziala erabat baliatzea berebiziko aurretiazko betekizunak dira Europako defentsa-industria indartsu batek eusten dituen Europako segurtasun- eta defentsa-esfortzuetarako.

Terrorismoaren aurkako borroka

Eraso terrorista handiak egon dira, bai Europan, bai Europatik kanpo. Funtsezkoa da terrorismoaren aurkako borrokan gehiago inbertitzea eta horrekiko solidaritatea indartzea. Horrenbestez, Estatu Kideen eta Europar Batasuneko agentzien artean informazio gehiago partekatzea bultzatuko dugu, baita horien arteko inteligentzia-lankidetzak ere. Horrek esan nahi du extremismo biolentoaren, terrorista-sareen eta atzerriko borrokalari terroristen gaineko alertak partekatu behar direla, baita hedabideetako eduki ilegala monitorizatu eta kendu behar dela ere.

“Europar Batasunak bere balioak bultzatuko ditu Europar Batasunean bertan zein kanpoan: hori da extremismo biolentoaren aurka dugun antidotorik onena.”

Aldi berean, Europar Batasunak Estatu Kideak azkar lehengoratzea erraztuko du erasoak daudenean, horniduren segurtasuna indartuz, azpiegitura kritikoak babestuz eta ziberkrisialdiak kudeatzeko esparru boluntarioa indartuz. Estremismo biolentoaren aurka egiteko, sakonago lan egingo dugu hezkuntzan, komunikazioan, kulturen, gazterian eta kirolean. Erradikalizazioaren aurkako borrokan lan egingo dugu hitzarmenak zabalduz gizarte zibilarekin, gizarte-eragileekin, sektore pribatuarekin eta terrorismoaren biktimekin. Horrez gain, erlijio eta kultura arteko elkarrizketa bultzatuko dugu. Garrantzitsuena da Europar Batasunak bere balioak bultzatuko dituela Europar Batasunean bertan zein kanpoan: hori da extremismo biolentoaren aurka dugun antidotorik onena. Horrekin batera, giza eskubideen arabera terrorismoaren aurkako lankidetzak gehiago garatu egingo dugu Afrikako Iparraldearekin, Ekialde Ertainarekin, Mendebaldeko Balkanekin eta Turkiarekin, besteak beste. Halaber, mundu osoko bazkideekin lan egingo dugu, jardunbiderik egokienak partekatzeko eta extremismo biolentoaren zein erradikalizazioaren aurka egiteko baterako programak garatzeko.

Zibersegurtasuna

Europar Batasunak arreta gehiago jarriko du zibersegurtasunean;

horretarako, Europar Batasuna ekitatu egingo du eta Estatu Kideei lagunduko die zibermehatxuen aurka babesten, aldi berean, ziberespazio irekia, askea eta segurua mantenduz. Aurrekoa egiteko, mehatxuak arintzeko gaitasun teknologikoak indartu beharko dira, baita azpiegitura, sare eta zerbitzu kritikoek erresilientzia ere.

Horrekin batera, ziberdelinkuentzia murriztu beharko da. Horrek esan nahi du Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) sistema berritzaileak sustatu behar direla, datuen eskuragarritasuna eta osotasuna bermatzen dituztenak. Horrez gain, aldi berean, segurtasuna ziurtatu beharko da Europako espazio digitalaren barruan, datu-biltegien kokapenaren eta produktu eta zerbitzu digitalen ziurtapenaren gaineko politika egokien bitartez. Horretarako, gai zibernetikoak jaso behar dira politika-arlo guztietan, Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politikaren misio eta operazioetako elementu zibernetikoak indartu behar dira eta lankidetzarako plataformak garatzen jarraitu behar da. Europar Batasunak Estatu Kideen arteko politika-, operazio- eta teknika-ziberlankidetzak sustatu egingo du, nagusiki, analisiari eta ondorioen kudeaketari dagokienez. Halaber, partekatutako ebaluazioak bultzatuko ditu Europar Batasuneko egituren eta Estatu Kideetako erakunde garrantzitsuen artean. Zibersegurtasun-lankidetzak handitu egingo du Estatu Batuak eta OTAN bezalako kideekin. Horrez gain, Europar Batasunaren erantzuna lankidetzak publiko-pribatu indartsuetan ezarri egingo da. Estatu Kideen, erakundeen, sektore pribatuaren eta gizarte zibilaren arteko lankidetzak eta informazio-partekatzeak zibersegurtasun-kultura komun bat susta dezakete eta balizko disrupzio eta eraso zibernetikoetarako prestatzea erraz dezakete.

Energia-segurtasuna

Energia Batasuna Europako energia-segurtasunaren barne- eta kanpo-dimentsioetan lan egiteko esfortzu bateratua da. Energia Batasunaren helburuekin bat eginez, Europar Batasuna saiatuko da bere energia-iturriak, bideak eta hornitzaileak dibertsifikatzen, bereziki, gasaren eremuan. Horrez gain, hirugarren herrialdeetan segurtasun nuklearreko estandarrik altuenak sustatzen saiatuko da. Energia-diplomaziaren bidez, harremanak indartuko ditugu energia ekoizten duten mundu osoko herrialde fidagarriekin eta igarotze-bidean dauden herrialdeekin eta, gainera, dibertsifikatutako iturriak Europako merkatuetara heltzea ahalbidetzen duen azpiegituraren ezarpena babestuko dugu.

“Energia-diplomaziaren bidez, harremanak indartuko ditugu energia ekoizten duten mundu osoko herrialde fidagarriekin eta igarotze-bidean dauden herrialdeekin eta, gainera, dibertsifikatutako iturriak Europako merkatuetara heltzea ahalbidetzen duen azpiegituraren ezarpena babestuko dugu:”

Hala eta guztiz ere, hirugarren herrialdeekiko azpiegitura-akordio lotesleek eragin bereizgarria izan dezakete batasuneko hornidura-segurtasunean edo barneko energia-merkatuaren funtzionamendua oztopa dezakete. Horregatik, hitzarmen horiek gardenak izan behar dira.

Gainera, azpiegitura berri guztiek Europar Batasuneko zuzenbide aplikagarria erabat bete beharko dute, Hirugarren Energia Paketea barne. Barne-mailan, Europar Batasunak erabat funtzionatzen duen barneko energia-merkatuan lan egingo du; energia jasangarrian eta energia-eraginkortasunean zentratuko da eta koherentziaz garatu egingo ditu gas natural likidotua biltegitratzeko azpiegitura bat, alderantzizko fluxua eta interkonexioa.

Komunikazio estrategikoak

Europar Batasunak bere komunikazio estrategikoak areagotuko ditu, diplomazia publikoan inbertituz eta hori koordinatuz eremu desberdinetan, Europar Batasunaren kanpo-politika herritarrekin konektatzeko eta hori hobeto komunikatzeko gure bazkideei. Gure mezuen sendotasuna eta abiadura hobetuko ditugu gure printzipio eta ekintzei dagokienez. Horrez gain, azkar eta frogekin gezurtatuko dugu informazio faltsua. Jarraituko dugu, bai Europar Batasunean, bai hortik kanpo, jakin-minezko hedabide irekien ingurunea sustatzen, tokiko eragileekin lan eginez eta sare sozialak baliatuz.

3.2 Estatu- eta gizarte-erresilientzia gure ekialdean eta hegoaldean

Gure herritarrentzat, interesgarria da estatuen eta gizartearen erresilientzian inbertitzea, ekialderantz, Asia Zentraleraino hedatuz eta, hegoalderantz, Afrika Zentraleraino. Gure mugez haragoko hauskortasunak gure funtsezko interes guztiak mehatxatzen ditu. Aitzitik, erresilientzia, estatuen eta gizartearen erreformatzeko eta, hortaz, barne- eta kanpo-krisialdiei eusteko eta horietaz berreskuratzeko gaitasuna, onuragarria da guretzat eta inguruko eskualdetako herrialdeentzat ere bai.

“Gure herritarrentzat, interesgarria da estatuen eta gizartearen erresilientzian inbertitzea, ekialderantz, Asia Zentraleraino hedatuz eta, hegoalderantz, Afrika Zentraleraino. Demokrazia, erakundeekiko konfiantza eta garapen jasangarria ezaugarri nagusitzat dituen gizarte erresiliente bat dago estatu erresiliente baten erdigunean.”

Izan ere, horrek hazkunde jasangarrirako eta gizarte sutsuetarako haziak

ereiten ditu. Hortaz, bere bazkideekin batera, Europar Batasunak erresilientzia sustatu egingo du inguruko eskualdeetan. Estatu erresiliente bat estatu seguru bat da eta segurtasuna oparotasun eta demokraziarako gakoa da. Hala eta guztiz ere, kontrakoa ere bada egia. Segurtasun jasangarria ziurtatzeko, ez ditugu soilik estatu-erakundeak babestuko.

Garapen Jasangarrirako Helburuen arabera, erresilientzia kontzeptu zabalagoa da, banakako guztiak eta gizarte osoa barne hartzen dituena. Demokrazia, erakundeekiko konfiantza eta garapen jasangarria ezaugarri nagusitzat dituen gizarte erresiliente bat dago estatu erresiliente baten erdigunean.

Handitze-politika

Europar Batasunaren itunetan ezarritako balioak errespetatzen eta sustatzen dituen Europako estatu orok izango du aukera batasuneko estatu kide izateko eskatzeko. Baldintza zorrotz eta bidezkoetan oinarritutako handitze-politika sinesgarria tresna paregabea da inplikaturako herrialdeen erresilientzia indartzeko, modernizazioa eta demokratizazioa atxikitzeko irizpideekin bat eginez garatzen direla ziurtatuz.

“Handitze-politika sinesgarria Europaren segurtasunerako eta oparotasunerako inbertsio estrategikoa da; izan ere, nabarmen lagundu du dagoeneko iraganean gerrek suntsitutako gunetako bakea berrezartzen.”

Handitze-politika sinesgarria Europaren segurtasunerako eta oparotasunerako inbertsio estrategikoa da; izan ere, nabarmen lagundu du dagoeneko iraganean gerrek suntsitutako gunetako bakea berrezartzen.

Egungo handitze-politikaren irismenaren barruan, Europar Batasunak, Mendebaldeko Balkanak eta Turkiak erronka hauek partekatzen dituzte: migrazioa; energia-segurtasuna; terrorismoa eta antolatutako krimena. Elkarrekin baino ezin diegu aurre egin erronka horiei. Hala ere, herrialde horien erresilientzia ezin da ziurtzat jo. Europar Batasunak eragin paregabea dauka herrialde horietan. Horregatik, Europar Batasunaren erronka estrategikoa da erreforma politikoa, zuzenbide estatua, konbergentzia ekonomikoa eta erkidego-harreman onak sustatzea Mendebaldeko Balkanetan eta Turkian, koherentziaz, sektore desberdinetan lankidetzat bilatzen den bitartean.

Hautagaiak diren herrialdeei zuzendutako Europar Batasunaren politika atxikipen-prozesu argi, zorrotz eta bidezko batean oinarrituta egongo da. Lehenik eta behin, Europar Batasunera atxikitzeko funtsezko betekizunetan zentratuko da eta erreformen azterketa sakonagoa hartuko du barne, baita erreforma horietarako betekizun argiagoak eta Europako Batzordearen eta Estatu Kideen zein tokiko gizarte zibilen erantzunak ere. Aldi berean,

Europar Batasunaren herrialde hauekiko laguntzak eta lankidetzak onura zehatzak eragin behar ditu gaur eta, gainera, ondo komunikatu beharra dago. Horrek esan nahi du elkarlanean arituko direla gai hauetan: terrorismoaren aurkako borroka; segurtasun-sektorearen erreforma; migrazioa; azpiegiturak; energia eta klima.

Era berean, pertsonen arteko kontaktuetan sakonduko da eta Europar Batasunaren laguntzaren parte birbideratuko da, herritarren ongizatea nabarmen hobetzeko xedearekin.

Gure bizilagunak

Gure bizilagunei erreparatuz, estatuaren eta gizartearen erresilientzia da gure lehentasun estrategikoa. Europako Auzotasun Politikaren aplikazio-eremuaren ekialdean zein hegoaldean dauden pertsona askok bere lotura estutu nahi dute Europar Batasunarekiko. Gure erakartzeko gaitasun iraunkorrak eraldaketa bultzatzea ez dago beste herrialdeen aurka. Gaur egun, talde horren barruan daude, besteak beste, Tunisia edo Georgia; herrialde horiek arrakasta izan dute demokrazia oparo, baketsu eta egonkor gisa eta arrakasta hori dagozkien eskualdeetan hedatuko litzateke. Europako Auzotasun Politikak gurekin harreman estuagoak garatu nahi dituzten Ekialdeko Elkarteko eta Mediterraneoaren hegoaldeko herrialdeak birbideratu ditu.

Hala, herrialde hauei lagunduko diegu elkarketa-akordioen aplikazioan, barne hartuz Irismen Zabal eta Sakoneko Merkataritza Askeko Guneak. Neurria egindako elkarketetan sakonduko dugu modu sortzaile batean. Hauek dira aukera horietako batzuk: Irismen Zabal eta Sakoneko Merkataritza Askeko Guneak aplikatzen dituzten herrialdeekiko espazio ekonomiko bat sortzea; Europaz zein Energiaren Erkidegoaz gaindikoa sareak handitzea eta konexio fisikoak zein digitalak eraikitzea. Aurrekoaz gain, gizartearen loturak indartu egingo dira, mugikortasuna, kultura- eta hezkuntza-trukeak, ikerketaren arloko lankidetzak eta gizarte zibilaren plataformak sustatuz. Europar Batasuneko programetan eta agentzietan erabat parte hartzeko, elkarrizketa estrategikoa bultzatuko da, herrialde horiek Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politikan gehiago parte hartzeko oinarriak finkatze aldera.

Erresilientzia lehentasun estrategikoa da Europar Batasunaren ekialdean eta hegoaldean, bai Europar Batasunarekiko loturak estutu nahi dituzten herrialdeetan (Europako Auzotasun Politikaren barruan eta hortik harago), zein loturak estutu nahi ez dituzten herrialdeetan. Europar Batasunak erresilientziarako bide desberdinak babestuko ditu ekialderantz eta hegoalderantz. Hala, hauskortasun-dimentsiorik larrienetan zentratuko da eta benetako desberdintasuna eragin dezakeen horietan jardungo du.

Erresilientzia inguruko eskualdeetan

Europar Batasunak erresilientzia indartzeko alde anitzeko ikuspegia aplikatuko du inguruko eskualdeetan. Epe luzera, errepresio-estatuak,

berez, hauskorrak dira; aitzitik, modu ugari daude gizarte inklusibo, oparo eta seguruak eraikitzeko. Hortaz, neurrira egindako politikekin jarraituko dugu, gobernantza integratzailea eta erantzulea babesteko; hain zuzen ere, hori berebizikoa da terrorismoaren, iruzurraren eta antolatutako delinkuentziaren aurkako borrokarako eta giza eskubideen babeserako.

Errepresioak hedabideen egonezina adierazteko aukera itotzen du eta erkidegoak bazterten ditu. Horrenbestez, Europar Batasunak giza eskubideak sustatuko ditu elkarrizketaren eta laguntzaren bitartez, batez ere, kasurik zailenetan. Epe luzerako konpromisoaren bidez, etengabe bilatuko dugu giza eskubideen babesean aurrera egitea. Eskubideetan oinarritutako tokiko titulartasuneko planteamenduak mantenduko ditugu justizia, segurtasun eta defentsaren sektoreak erreformatzeko; horrekin batera, estatu hauskorrei lagunduko diegu gaitasunak garatzen, baita gaitasun informatikoak ere. Garapenaren, diplomaziaren eta Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politikaren bidez egingo dugu lan eta segurtasunaren sektorea erreformatzearekin lotutako esfortzuek gure bazkideek segurtasuna sortzeko dituzten gaitasunak gaitzeko eta indartzeko egingo dugu lan, betiere Zuzenbide Estatuaren esparruan. Aurrekoaz gain, nazioarteko beste eragile batzuekin elkarlanean arituko gara, gaitasunak sortzeko lana koordinatuz, bereziki, Nazio Batuekin eta OTANekin.

Garapen Jasangarrirako Helburuei jarraiki, Europar Batasunak baterako ikuspegi bat aplikatuko die politika desberdinei: politika humanitarioak eta garapen-, migrazio-, merkataritza-, inbertsio-, azpiegitura-, hezkuntza-, osasun- eta ikerketa-politikak. Horrez gain, Europar Batasunaren eta bertako Estatu Kideen arteko koherentzia horizontala hobetu egingo du. Gizarte-erresilientzia elikatu egingo dugu hezkuntza, kultura eta gazteriaren eremuetako lana sakonduz, horrela pluralismoa, baterako existentzia eta errespetua sustatzeko.”

Estatuak erresilienteak dira gizarteek sentitzen dutenean hobetzen ari direla eta etorkizunean itxaropena dutenean. Garapen Jasangarrirako Helburuei jarraiki, Europar Batasunak baterako ikuspegi bat aplikatuko die politika desberdinei: politika humanitarioak eta garapen-, migrazio-, merkataritza-, inbertsio-, azpiegitura-, hezkuntza-, osasun- eta ikerketa-politikak. Horrez gain, Europar Batasunaren eta bertako Estatu Kideen arteko koherentzia horizontala hobetu egingo du. Txirotasunaren eta berdintasunik ezaren aurka borrokatuko dugu; zerbitzu publikoetarako eta

gizarte-segurantzarekiko sarbidea hedatuko dugu eta lan-aukera duinak defendatuko ditugu, batez ere, emakume eta gazteentzat. Ekimen ekonomiko berriak, enplegua eta baztertutako taldeen gizarteratzea sustatzen dituen ingurune bat bultzatuko dugu. Garapen-funtsek inbertsio estrategikoak katalizatu behar dituzte sektore publiko eta pribatuaren arteko elkarketen bidez, hazkunde jasangarria, enpleguaren sorkuntza eta eskumen eta teknologiaren transferentzia eraginez. Erabiliko ditugu gure merkataritza-akordioak, garapen jasangarria, giza eskubideen babesa eta arauetan oinarritutako gobernantza sustatzeko.

Gizartearen erresilientzia indartuko da gizarte zibilarekiko harremanetan sakonduz, bereziki, gobernuek kontuak eman ditzatela lortzeko esfortzuetan. Gehiago hurbilduko gara kultura-antolakuntzetara, erkidego erlijiosoetara, gizarte-hizketakideengana eta giza eskubideen defendatzaileengana. Horrez gain, gizarte zibilarentzako espazio gero eta murriztagoaren aurka egingo dugu, adierazpen- eta elkarketa-askatasunen urraketak barne hartuta. Aldaketa positiboa etxean soilik gerta daiteke eta baliteke urteak behar izatea hori gauzatzeko. Hortaz, gizarte zibilarekiko konpromisoa epe luzerakoa da. Gizarte-erresilientzia elikatu egingo dugu hezkuntza, kultura eta gazteriaren eremuetako lana sakonduz, horrela pluralismoa, baterako existentzia eta errespetua sustatzeko.

Azkenik, Europar Batasuna energia- eta ingurumen-erresilientzia zabaltzen saiatuko da. Energia-trantsizioa erronkarik handienetako bat da inguruetako eskualdeetan, baina behar bezala kudeatu beharra dago, gizarte-tentsioak piztea ekiditeko. Klima-aldaketak eta ingurumen-narriadurak balizko gatazka larriagotzen dute, eragin handia dutelako basamortutzean, lurraren narriaduran eta ur- eta janari-eskasian. Segurtasunaren sektorea erreformatzeko esfortzuek bezalaxe, energia- eta ingurumen-erreformako politikak herrialde bazkideei lagun diezaiekete energia-trantsizioaren eta klimaren aldeko ekintzaren bidean. Esfortzu horien bidez, energiaren liberalizazioa, berriztagarrien garapena, arauketa hobea eta transferentzia teknologikoak bultzatuko ditugu, klima-aldaketa arintzearekin eta horretara egokitzearekin batera. Halaber, gobernuei lagunduko diegu elikagaien produkzioari eta uraren zein energiaren erabilerari erantzun jasagarriak ematen, zehazki, garapenerako lankidetzazientifikoaren eta diplomatikoaren bidez.

Migrazio-politika eraginkorragoa

Erresilientziaren arloko lanean, arreta berezia jarriko dugu migratzaileen eta errefuxiatuen jatorri- eta igarotze-herrialdeetan. Nabarmen indartuko ditugu herrialde horietako esfortzu humanitarioak, hezkuntzan, emakumeetan eta haurretan zentratuz. Jatorri- eta igarotze-herrialdeekin batera, migrazioa kudeatzeko ikuspegi komunak eta pertsonalizatuak garatuko ditugu, garapena, diplomazia, mugikortasuna, legezko migrazioa, mugen kudeaketa, berriz onartzea eta itzulera barne hartuta. Garapenaren, trust-funtsen, prebentzio-diplomaziaren eta bitartekaritzaren bidez, jatorri-herrialdeekin lan egingo dugu, desplazamenduaren jatorrizko kausak aztertzeko eta prebenitzeko, migrazioa kudeatzeko eta mugaz gaindiko krimenaren aurka borrokatzeko. Igarotze-herrialdeei lagunduko diegu harrera- eta asilo-gaitasunak hobetzen eta migratzaileen hezkuntzan, lanbide-heziketan eta bizitza-aukeretan lan egiten. Fluxu irregularrak deuseztatu behar ditugu; itzulerak eraginkorragoak izatea lortu behar dugu

eta gizakion mugikortasunerako bide erregularrak bermatu. Horrek esan nahi du egungo migrazioko legezko bideak eta bide zirkularrak hobetu eta aplikatu behar direla.

“Jatorri- eta igarotze-herrialdeekin batera, migrazioa kudeatzeko ikuspegi komunak eta pertsonalizatuak garatuko ditugu, garapena, diplomazia, mugikortasuna, legezko migrazioa, mugen kudeaketa, berriz onartzea eta itzulera barne hartuta. Nazioarteko kideekin lan egingo dugu, partekatutako erantzukizun eta solidaritate globalak ziurtatze aldera.”

Horrez gain, aurrekoak esan nahi du eraginkorragoa den asilo-sistema komun europar baten alde lan egin behar dela, asiloa eskatzeko eskubidea mantenduko duena eta Europar Batasunean nazioarteko babesa eskatzen duten errefuxiatuak modu seguru, erregular eta legal batean heltzen direla bermatuko duena. Aldi berean, nazioarteko bazkideekin elkarlanean arituko gara, mundu mailako erantzukizunak eta solidaritatea partekatzen direla bermatzeko. Elkarketa eraginkorragoak ezarriko ditugu migrazioaren kudeaketari dagokionez, zehazki, Nazio Batuen agentziekin, garatzen ari diren eragileekin, eskualde-mailako antolakuntzekin, gizarte zibilarekin eta tokiko erkidegoekin.

3.3 Ikuspegi bateratua gatazken eta krisialdien inguruan

Gero eta maizago ikusten dugu estatu hauskorrek gatazka biolentoetan egiten dutela eztanda. Krisi hauek eta eragiten dituzten biolentzia eta giza sufrimendu izugarriek partekatutako nahitaezko interesak mehatxatzen dituzte. Europar Batasuna printzipioetan oinarritutako modu praktiko batean konprometitu egingo da bake-eraikuntzako prozesuan, gure esfortzuak ekialdeko eta hegoaldeko inguruko eskualdeetan kontzentratuz; haragoko konpromisoa hartzeko aukera aztertu egingo dugu kasu bakoitzaren arabera. Europar Batasunak giza segurtasuna sustatu egingo du ikuspegi integratu baten bidez.

Gatazka horiek guztiek dimentsio ugari dituzte, besteak beste, hauek: segurtasuna, generoa, gobernantza eta ekonomia. Nahitaezkoa da dimentsio ugariko ikuspegi bat aplikatzea, prebentziora, kudeaketara eta gatazken ebazpenera zuzendutako eskuragarri dauden tresna eta politika guztiak baliatuz. Baina “ikuspegi globalaren” irismena are gehiago hedatu egingo da. Ez dago gatazka horiek konpontzeko bide azkarrik. Somaliako, Maliko, Afganistaneko eta beste leku batzuetako esperientziak erakusten du luzeak izan ohi direla. Beraz, Europar Batasunak fase anitzeko ikuspegi bat aplikatuko du, gatazka-zikloaren etapa guztietan jardunez. Prebentzioan, ebazpenean eta egonkortzean inbertituko dugu.

Gainera, beste nonbait krisialdi berria batek eztanda egiten duenean, deskonexio goiztiarra saihestuko dugu. Horrenbestez, Europar Batasunak konpromiso handiagoa hartuko du Ekialdeko Elkarteko herrialdeetan luzatzen ari diren gatazkak ebazteko. Gatazka horiek ez dira gobernantza-maila bakar batera mugatzen. Siriakoa edo Libiakoa bezalako gatazkak, maiz, tokiko mailan sortzen dira, baina hartzen duten nazio, eskualde eta mundu mailako estaldurak bihurtzen ditu hain konplexu. Hortaz, Europar Batasunak gatazkekiko maila anitzeko hurbilketa bilatuko du, maila guztietan jardunez, hau da, toki, nazio, eskualde eta mundu mailetan. Azkenik, Europar Batasunak ezingo ditu gatazka horiek bakarrik ebatzi. Alde anitzeko ikuspegi batetik kudeatzea bilatuko dugu, gatazkan inplikaturik dauden eta hori konpontzeko beharrezkoak diren eragile guztiak konprometituz.

“Europar Batasuna printzipioetan oinarritutako modu praktiko batean konprometitu egingo da bake-erakuntzako prozesuan, gure esfortzuak ekialdeko eta hegoaldeko inguruko eskualdeetan kontzentraturik; haragoko konpromisoa hartzeko aukera aztertu egingo dugu kasu bakoitzaren arabera. Gatazkekiko maila anitzeko hurbilketa bilatuko dugu, toki, nazio, eskualde eta mundu mailetan jardunez; alde anitzeko hurbilketa horrek gatazkan parte hartzen duten eta ebazteko beharrezkoak diren eragile guztiak inplikaturik ditu.”

Elkarketa-sistematikoagoak ezarriko ditugu lekuan bertan eskualdeko eta nazioarteko antolakuntzekin, alde biko emaleekin eta gizarte zibilarekin. Halaber, lankidetzaren handiagoa bilatuko da eskualde eta nazioarteko mailetan. Bake jasagarria soilik lortu ahal da nazioarteko zein eskualdeko lankidetzaren zabal, sakon eta iraunkorretan errotutako hitzarmen sakonen bidez.

Prebentzio-bakea

Jakina da gatazkak prebenitzea eraginkorragoa dela krisialdiei eztanda egin ostean aurre egitea baino. Behin gatazka hasita, normalean, denborarekin, zailagoa izaten da hori ebaztea. Europar Batasunak historia ona dauka

bakearen prebentziozko finkapenean eta prebentzio-diplomazian. Horrenbestez, gure esfortzuak bikoiztu egingo ditugu prebentzioa indartzeko eta jatorriko kausak monitorizatzeko: giza eskubideen urraketak, berdintasunik eza, baliabideekin lotutako estresa eta klima-aldaketa. Izan ere, klima-aldaketa mehatxuak biderkatzen ditu eta ur- eta elikagai-eskasia, pandemiak eta desplazamenduak katalizatzen ditu.

Alerta goiztiarra ez da oso baliagarria goiz jarduten ez bada. Horrek esan nahi du, aldizka, txostenak eta proposamenak aurkeztu behar zaizkiola kontseiluari; halaber, prebentzio-diplomazia eta bitartekaritza abiaraziko dira Europar Batasunaren delegazioak eta ordezkari bereziak mugiaraziz, gizarte zibilarekiko elkarreetan sakonduz. Gatazka biolentoaren arriskuari erantzuteko lehenago jardutearen kultura politikoa garatu behar dugu.

Segurtasuna eta egonkortasuna

Europar Batasunak konpromiso sistematikoagoa hartuko du gatazka hauen segurtasun-dimentsioan. Nazioarteko zuzenbidea erabat betez, Europako segurtasuna eta defentsa hobeto hornitu behar dira bakea eraikitzeko, segurtasuna bermatzeko eta gizakien bizitzak babesteko, batez ere, zibilenak. Europar Batasuna gai izan behar da azkar, erantzukizunez eta irmoki erantzuteko krisialdiei, bereziki, terrorismoari aurre egiten laguntzeko.

“Europako segurtasuna eta defentsa hobeto hornitu behar dira bakea eraikitzeko, segurtasuna bermatzeko eta gizakien bizitzak babesteko, batez ere, zibilenak. Europar Batasuna gai izan behar da azkar, erantzukizunez eta irmoki erantzuteko krisialdiei, bereziki, terrorismoari aurre egiten laguntzeko.”

Gai izan behar da segurtasuna emateko bake-akordioetara heltzen denean eta trantsizio-gobernuak ezartzen direnean edo eratzen ari direnean. Hori hala ez denean, Europar Batasuna prest egon behar da tokiko tregoa bultzatzeko eta horiek finkatzen laguntzeko, gaitasunen sorkuntzarako bidea eginez. Aldi berean, Europar Batasunak gatazka horietatik eragin daitekeen segurtasunik ezako kanpo-ondorioen aurka egin behar du, barne- eta kanpo-politiken erabilera koherentearen bidez.

Egonkortze-aukerak daudenean, Europar Batasunak legezko erakundeek tokiko herritarrei oinarrizko zerbitzuak eta segurtasuna ematea ahalbidetu behar du, indarkeriara itzultzeko arriskua murriztuz eta desplazatutako pertsonak itzultzea ahalbidetuz. Horrela, indarkeriaren amaieraren eta epe luzerako berreskurapenaren arteko erantzunean, saiatuko gara zubiak eraikitzen eta gure konpromisoaren izaera bikoitza artikulatzen (segurtasuna eta garapena).

Gatazken ebazpena

Gatazkan dagoen herrialde orok berreraiki beharko du estatuaren eta bertako herritarren arteko gizarte-kontratua.

Batasunak esfortzu horiek babestuko ditu, gobernantza inklusiboa bultzatuz maila guztietan. "Erdigunea" apurtu denean, goitik behera soilik jarduteak eragin mugatua dauka. Gatazken konponbide politiko inklusibo batek maila guztietan jarduteko eskatzen du. Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politikaren bidez, garapen-tresnen bidez eta horretarako berariaz sortutako finantza-tresnen bidez, beheranzko zein goranzko esfortzuak uztartuko ditugu, estatu-kategoriaren jarduera bideragarri baten oinarritzko osagaiak finkatzea eragiten dutenak, zehazki, tokiko ekimenean errotuta. Tokiko eskalako lanak, adibidez, tokiko agintaritzekin eta udalerriekin, lagun dezake herritarrei oinarritzko zerbitzuak ematen eta, gainera, aukera ematen du errotutako gizarte zibilarekiko konpromisoan sakontzeko.

Norabide horretan lan egiteak tokiko eskalako ezagutzak ere hobetuko ditu eta bi talde hauek bereizten lagunduko digu: hitz egin nahi dugun baina gure babesa emango ez diegun taldeak eta aktiboki lagunduko diegun taldeak, gizakion segurtasunaren eta adiskidetzearen aitzindari gisa.

Era berean, Europar Batasunak maila guztietan sustatu egingo du gobernantza inklusiboa, bitartekaritzaren eta errazteko lanaren bidez. Aldi berean, diplomaziaren inguruko ikuspegi sortzaileagoak aplikatuko ditugu. Horrek esan nahi du emakumeen papera sustatuko dela bake-esfortzuetan, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren emakumeen, bakearen eta segurtasunaren inguruko ebazpenen aplikaziotik Europar Batasuneko gizonezkoen eta emakumezkoen barne-oreka hobetzeraino. Halaber, gatazken ebazpenean, diplomazia kulturalera, konfesio arteko diplomaziara eta diplomazia zientifiko eta ekonomikora joko dugu modu sistematikoagoan.

Bakearen ekonomia politikoa

Europar Batasunak legezko ekonomia errotu eta finkatu ahalko den espazio bat bultzatuko du. Gatazka biolentoaren erdian, horrek esan nahi du oinarritzko ondasunak eta zerbitzuak ematen direla ahalbidetzeko laguntza humanitariorako sarbidea bermatuko dela.

"Bakearen ekonomia politikoak sinergia handiagoak eskatzen ditu laguntza humanitarioaren eta garapen-laguntzaren artean, gure babesa bideratuz osasuna, hezkuntza, babesa, oinarritzko ondasunak eta bidezko enplegua hornitzeko."

Horrez gain, horretarako, lan egin behar da gerrako ekonomia politika iraultzeko eta bizirauteko legezko bitartekoak egoteko aukerak sortzeko. Horrek sinergia handiagoak eskatzen ditu laguntza humanitarioaren eta garapen-laguntzaren artean, gure babesa bideratuz osasuna, hezkuntza, babesa, oinarrizko ondasunak eta bidezko enplegua hornitzeko. Egonkortze-aurreikuspenak agertzen direnean, merkataritzak eta garapenak, sinergian aritzen badira, epe luzerako bake-eraikuntza eutsi dezakete.

Murrizketa-neurriak, diplomaziarekin batera, aldaketa baketsua eragiteko tresna giltzarriak dira. Neurri horiek berebiziko papera izan dezakete gatazken disuasioan, prebentzioan eta ebazpenean. Zehapen adimendunak, nazioarteko zein Europar Batasuneko zuzenbidea betez, haztatuko dira eta arreta handiz gainbegiratuko dira, legezko ekonomia babesteko eta tokiko gizarteei kaltetzea saihesteko. Gerrako delitu-ekonomiaren aurka borrokatzeko, Europar Batasunak erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak kontrolatzeko politika ere modernizatu behar du, baita ondasun kulturalen eta baliabide naturalen legez kanpoko trafikoaren aurkako borroka ere.

3.4 Eskualde-mailako Lankidetzaren ordenak

Presio globalen eta tokiko atzerapenaren artean harrapatutako mundu honetan, eskualde-mailako dinamikak nabarmentzen hasi dira. Eskualdeak botere, elkarrekintza eta identitateko sare konplexuak dira eta gobernantzarako berebiziko espazioak ere bai deszentralizatutako mundu honetan. Eskualde-gobernantzako forma boluntarioek estatuei eta pertsoneri eskaintzen diete segurtasun-gaiak hobeto kudeatzeko aukera, baita abagunea ere globalizazioaren etekin ekonomikoak jasotzeko, kulturak eta identitateak askoz zabalago adierazteko eta munduko gaitan eragina proiektatzeko. Hori Europar Batasunaren XXI. mendeko bakerako eta garapenerako funtsezko oinarri bat da.

“Lankidetzaren hori funtsezko oinarria da Europar Batasunaren XXI. mendeko bakerako eta garapenerako. Horregatik, hain zuzen ere, eskualde-mailako lankidetzaren ordenak sustatu eta babestu egingo ditugu mundu osoan, baita banatuago dauden guneeetan ere.”

Horregatik, hain zuzen ere, eskualde-mailako lankidetzaren ordenak sustatu eta bultzatu egingo ditugu mundu osoan, baita banatuago dauden guneeetan ere. Eskualde-ordenek ez dute forma bakarra. Posible denean eta beste interes batzuekin bat datorrenean, Europar Batasunak eskualde-mailako antolakuntzak babestuko ditu. Ez dugu esfortzurik egingo gure eredia esportatzeko; aitzitik, eskualdeen esperientzia desberdinen elkarrekiko inspirazioa bilatuko dugu. Hala eta guztiz ere, antolakuntzak ez dira lankidetzako eskualde-ordenak sortzen dituzten bakarrak. Barne hartzen dute alde biko, eskualdez azpiko, eskualdeko eta eskualde arteko harremanen nahasketa bat. Era berean, eskualde bakoitzak hartutako

lankidetzaren-erantzuekin konektatutako munduko eragileen papera hartzen dute barne. Elkarrekin, nazioz gaindiko gatazka, erronka eta abaguneei egin diezaiekete aurre. Munduko eskualde desberdinetan, berariazko helburuek bultzatuta jardungo du Europar Batasunak. Eskualde guztietan, lankidetzaren-harremanetan inbertitu egingo dugu, erantzukizun global partekatuak bultzatzeko.

Europako segurtasun-ordena

Estatuen subiranotasuna, independentzia eta lurralde-osotasuna, mugen bortxaezintasuna eta gatazken ebazpen baketsua Europako segurtasun-ordenaren funtsezko elementuak dira. Printzipio hauek estatu guztiei aplikatzen zaizkie, Europar Batasunaren mugen barrukoei zein kanpokoei. Hala eta guztiz ere, Europako bakea eta egonkortasuna ezin dira jada ziurtzat jo. Errusiak nazioarteko zuzenbidea urratu du eta Ukrainian ez dago egonkortasunik; horrez gain, Itsaso Beltzaren eskualdeko eremurik handienez, zenbait gatazka luze egon dira jarraian. Aurreko guztia erronka bat da Europako segurtasun-ordeneraren nukleorako. Europar Batasunak bere batasuna mantenduko du nazioarteko zuzenbidea, demokrazia, giza eskubideak, lankidetzeta eta herrialde guztiek bere etorkizuna askatasunez erabakitzekeo eskubidea bermatzeko.

Errusiarekiko harremana kudeatzea erronka estrategiko giltzarria da. Koherentzia- eta batasun-ikuspegia izan behar da Europar Batasunaren Errusiarekiko politikaren oinarria. Europar Batasunaren eta Errusiaren arteko harremanen aldaketa nabarmenen oinarria da erabat errespetatu behar dela nazioarteko zuzenbidea. Horrez gain, harreman horretan, berebizikoa da Europako segurtasun-ordenaren oinarrian dauden printzipioak betetzea, besteak beste, Helsinkiko Azken Akta eta Parisko Gutuna. Ez dugu Krimea legez kanpo atxikitzea onartuko Errusiaren alde egitearren, ezta Ukraniko ekialdea desegonkortzea ere. Europar Batasuna indartuko dugu; ekialdeko auzokideen erresilientzia handituko dugu eta Europar Batasunarekiko duten ikuspegia askatasunez zehazteko eskubidea bermatuko dugu. Aldi berean, Europar Batasuna eta Errusia independenteak dira. Horrenbestez, Errusia erakarriko dugu, desadostasunak eztabaidatzeko eta lankidetzan aritzeko gure interesak gainjartzen direnean.

“Europar Batasunaren eta Errusiaren arteko harremanak nabarmen aldatzeko, beharrezkoa da nazioarteko zuzenbidea erabat errespetatzea. Aldi berean, Errusia erakarriko dugu, desadostasunak eztabaidatzeko eta lankidetzan aritzeko gure interesak gainjartzen direnean.”

Gaur egun, elkarlanean aritzen gara jada kanpo-politikaren gai batzuetan; hala ere, konpromiso selektiboa ezar liteke Europarentzat ere interesgarriak diren gai batzuei dagokienez, besteak beste, hauei dagokienez: klima, Artikoa, itsaso-segurtasuna, hezkuntza, ikerketa eta mugaz gaindiko lankidetzeta. Aurrekoaz gain, konpromisoak gizarte-lotura

sakonagoak hartu beharko lituzke barne, zehazki, ikasleentzako, gizarte zibilarentzako eta enpresentzako bidaiak erraztuz.

Europar Batasunak, eskualde osoa barne hartuz, lankidetzaz bultzatuko du Europako Kontseiluarekin eta Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Antolakuntzarekin (OSCE). OSCE Europa osoa hartzen duen antolakuntza da eta, atlantikoaz gaindiko lotura baten bidez, Asia Zentraleraino hedatzen da; hala, antolakuntza Europako segurtasun-ordenaren erdigunean dago.

Europar Batasunak Europako Segurtasun eta Lankidetzako Erakundearen (ESLE) egiten duen ekarpena zein horrekiko lankidetzaren indartuko ditu, segurtasun europarraren oinarria baita.

Mediterraneo, Ekialde Ertain eta Afrika baketsu eta oparoak

Mediterraneoan, Ekialde Hurbila eta Saharaz hegoaldeko Afrikako parte batzuk egoera nahasian daude eta baliteke horren emaitza oraindik ere hamarkada batzuk barru argitzea. Hegoaldean gatazkak ebaztea eta garapena eta giza eskubideak sustatzea funtsezkoa da terrorismoaren mehatxuari eta demografia, migrazioa eta klima-aldaketaren erronkei aurre egiteko eta partekatutako oparotasunaren abagunea baliatzeko. Europar Batasunak Afrikako eta Ekialde Ertaineko eskualde zein eskualde azpiko antolakuntzekiko babesa eta horiekiko lankidetzaren indartuko ditu.

“Elkarrizketa eta negoziazioa bultzatu egingo ditugu Siria eta Libiako gatazkak bezalako eskualde-mailako gatazkei dagokienez. Palestinaren eta Israelen arteko gatazkari erreparatuz, Europar Batasunak lankidetzaren estuan lan egingo du Laukotearekin, Liga Arabiarrarekin eta interesdun giltzarri guztiekin, ikuspegi hau mantentzeko: 1967ko mugetan oinarritutako bi estatuen konponbide baten bideragarritasuna, lur baliokideen trukearekin.”

Aurrekoaz gain, lankidetzaren formatu funtzionalak bultzatuko ditu eskualde horietan. Hala eta guztiz ere, eskualde-antolakuntzek ez dituzte dagozkien dinamika guztiak jorratzen eta horietako batzuek egungo desfaseak islatzen dituzte. Horrenbestez, malgutasunez ere jardungo dugu, arrailak gainditzeko eta eskualde-mailako eragileei laguntzeko emaitza zehatzak lortzen. Hori lortuko da gure politikak eta alde biko zein alde anitzeko esparruak mugiaraziz, baita eskualdeko gizarte zibilekin elkartzuz ere.

Europar Batasunak bost ekintza-ildo jarraituko ditu. Lehenik eta behin, Magreben eta Ekialde Hurbilean, Europar Batasunak funtzionamenduan dagoen alde anitzeko lankidetzaren alde egingo du. Lankidetzaren praktikoaren alde egingo dugu, baita Mediterraneoaren aldeko Batasunaren bidez ere, besteak beste, gai hauei dagokienez: mugen segurtasuna; legez kanpoko trafikoa; terrorismoaren aurkako borroka; ez-ugaritzea; ur-sarbidea eta elikagai-segurtasuna; energia eta klima-

aldaketa; azpiegiturak eta hondamendien kudeaketa. Elkarrizketa eta negoziazioa bultzatu egingo ditugu Siria eta Libiako gatazkak bezalako eskualde-mailako gatazkei dagokienez. Palestinaren eta Israelen arteko gatazkari erreparatuz, Europar Batasunak lankidetzan lan egingo du Laukotearekin, Liga Arabiarrarekin eta interesdun giltzarri guztiekin, ikuspegi hau mantentzeko:

1967ko mugetan oinarritutako bi estatuen konponbide baten bideragarritasuna, lur baliokideen trukearekin. Horrez gain, lankidetzaz hori ezarriko da negoziazio esanguratsuetarako baldintzak sortzeko. Halaber, Europar Batasunak Europako zein nazioarteko zuzenbidea erabat betetzea bultzatuko du, zehazki, Israelekiko eta Palestinako Agintaritzarekiko lankidetzan sakontzerakoan.

Bigarrenik, Europar Batasunak Turkiarekiko lankidetzaz sektoriala indartuko du, Turkia demokrazian ainguratzen saiatzen den bitartean, betiere atxikipen-irizpideei jarraiki, Txiprerekiko harremanen normalizazioa barne hartuta. Horregatik, Europar Batasunak jarraituko du atxikipen-prozesuarekin, atxikipenerako zenbait baldintza zorrotz eta bidezko betez. Aldi berean, terrorismoaren aurkako borroka, eskualde-segurtasun eta errefuxiatuen inguruko elkarrizketa bultzatuko du koherentzia osoz. Halaber, aduana-batasunaren modernizazioan eta bisen liberalizazioan egingo dugu lan eta Turkiarekin elkarlanean jarraituko dugu hezkuntza, energia eta garraioaren eremuetan.

Hirugarrenik, Europar Batasunak jarraituko du jarduketa orekatua bultzatzen Golkokoan. Lankidetzan jarraituko du Golkoko Lankidetzaz Kontseiluarekin eta Golkoko herrialdeekin. Iranekiko akordio nuklearrean eta horren aplikazioan oinarrituz, apurka-apurka, Iranekin lan egingo du honakoak bezalako eremuetan: merkataritza, ikerketa, ingurumena, energia, pertsonen legez kontrako trafikoaren aurkako borroka, migrazioa eta gizartearen arteko trukeak. Iranekiko eta Golkoko Lankidetzaz Kontseiluko herrialdeekiko elkarrizketa sakonduko da eskualde-mailako gatazkei, giza eskubideei eta kontraterrorismoari dagokienez, krisialdiek kutsatzea saihesteko eta lankidetzarako eta diplomaziarako espazioa bultzatuz.

“Iranekiko eta Golkoko Lankidetzaz Kontseiluko herrialdeekiko elkarrizketa sakonduko dugu eskualde-mailako gatazkei, giza eskubideei eta kontraterrorismoari dagokienez, krisialdiek kutsatzea saihesteko eta lankidetzarako eta diplomaziarako espazioa bultzatuz. ”

Laugarrenik, Afrikako iparraldearen eta Saharaz hegoaldeko Afrikaren arteko zein Afrikako Adarraren eta Ekialde Hurbilaren arteko gero eta konexio handiagoak ikusita, Europar Batasunak azpieskualde hauen bidezko lankidetzaren alde egingo du. Horretarako, harreman triangeluarrak sustatuko dira Itsaso Gorriaren bidez Europa, Afrikako Adarra eta Golkoaren artean, segurtasun-erronkei aurre egiteko eta

abagune ekonomikoak baliatzeko. Horrek esan nahi du modu sistematikoan kudeatu egin behar dela Afrikako iparraldeko eta mendebaldeko, Saheleko eta Chad Lakuko eskualdeko mugaz gaindiko dinamika hori, Afrikako Batasunarekiko, Mendebaldeko Afrikako Estatuaren Erkidego Ekonomikoarekiko eta Saheleko G5arekiko lotura estuagoen bidez.

Azkenik, Afrikako bakean eta garapenean inbertituko dugu, gure segurtasun eta oparotasunerako inbertsio gisa. Bestek beste, antolakuntza hauen arteko lankidetzak indartuko dugu: Afrikako Batasuna; Mendebaldeko Afrikako Estatu Erkidego Ekonomikoa; Mendebaldeko Afrikaren Garapenerako Gobernu arteko Agintaritzak eta Mendebaldeko Afrikako Erkidegoa. Horrekin batera, horien aldeko laguntza sustatuko dugu. Hala, esfortzuak bikoiztu behar ditugu Afrikan hazkundera eta enplegua pizteko. Elkarketa ekonomikorako akordioek Afrikako integrazioa eta mugikortasuna susper ditzakete eta munduko balio-kateetan modu orekatuan eta erabat parte hartzea bultzatzen dezakete. Era berean, jauzi kuantitatibo bat egin behar da Europak Afrikan egiten duen inbertsioan, garapen jasagarria bultzatzeko.

“Afrikako bakean eta garapenean inbertituko dugu, gure segurtasun eta oparotasunerako inbertsio gisa. Esfortzuak handitu behar ditugu Afrikako hazkundera eta enpleguak pizteko.”

Lotura hobekuntzak ezarriko ditugu Afrikarako merkataritza-, garapen eta segurtasun-politiken artean eta garapenerako esfortzuak uztartu egingo ditugu migrazio, osasun, hezkuntza, energia eta klima, zientzia eta teknologiaren eremuetako lanarekin, hain zuzen ere, elikagaien segurtasuna hobetze aldera. Jarraituko dugu, Afrikan, bake- eta segurtasun-esfortzuak babestuz eta Afrikako antolakuntzen lanean lagundu egingo dugu honakoak bezalako eremuetan: gatazken prebentzioa, terrorismoaren aurkako borroka eta antolatutako delinkuentzia, migrazioa eta mugen kudeaketa. Hori egingo dugu diplomaziaren bidez, Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politikaren bidez eta garapenaren bidez, baita eskualde-mailako estrategien alde egiteko funts fiduziarioen bitartez.

Atlantiko hurbilagoa

Europar Batasunak gehiago inbertitu egingo du Atlantikoan zehar lotura sakonak ezartzeko, bai iparraldean, bai hegoaldean. OTANen bidezko Estatu Batuekiko eta Kanadarekiko elkarketa transatlantiko irmo batek laguntzen digu erresilientzia indartzen eta gatazkei aurre egiten, mundu-gobernantza eraginkor bat bultzatzen duen bitartean. Ia-ia hirurogeita hamar urtez, OTAN segurtasun euroatlantikorako oinarria izan da bere kideentzat. Izan ere, oraindik ere, bada munduko aliantza militarrik irmoena eta eraginkorrena.

“Europar Batasunak gehiago inbertitu egingo du Atlantikoan zehar lotura sakonak ezartzeko, bai iparraldean, bai hegoaldean. Lankidetzaren transatlantiko irmo batek laguntzen digu erresilientzia indartzen, gatazkak kudeatzen eta gobernantza global eraginkorrean laguntzen.”

Hortaz, Europar Batasunak OTANekiko elkarketan sakonduko du, defentsa-gaitasunaren garapen koordinatuaren bidez, ariketa paralelo eta sinkronizatuen bidez eta elkarrekiko errefortzu-ekintzen bidez, gure kideen gaitasunak garatzeko, mehatxu hibridoetara eta mehatxu zibernetikoei aurre egiteko eta itsaso-segurtasuna bultzatzeko.

Estatu Batuekin, Europar Batasunak Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzaren Transatlantikoa (TTIP) lortzeko lan egingo du. Kanadarekiko Ekonomia eta Merkataritza Akordio Globala bezalaxe, TTIP konpromiso transatlantikoaren seinale da, partekatutako balio batzuk jasotzen dituena. Horrez gain, erakusten du prest gaudela arauetan oinarritutako merkataritza-agenda handizalea edukitzeko. Segurtasun-agenda zabalagoan, Estatu Batuak izango dira gure bazkide nagusia. Europar Batasunak lankidetzaren indartuko du Estatu Batuekin eta Kanadarekin gai hauetan: krisialdien kudeaketa; kontraterrorismoa; zibersegurtasuna; migrazioa; energia eta klima-ekintza.

Espazio atlantiko zabalagoan, Europar Batasunak lankidetzaren indartu egingo du eta lankidetzaren hitzarmen hobeak eraikiko ditu Latinoamerikarekin eta Karibearekin, hain zuzen ere, partekatutako balio eta interesetan oinarrituta. Alde anitzeko loturak garatu egingo ditu Latinoamerikako eta Karibeko Estatuaren Erkidegoarekin (CELAC) eta eskualde-mailako erakunde desberdinekin, betiere bere lehia-abantailaren arabera. Elkarrizketa politikoa eta lankidetzaren areagotuko ditugu gai hauei dagokienez: migrazioa; itsaso-segurtasuna eta ozeanoetako bizitzaren babesa; klima-aldaketa eta energia; armagabetzea; armen ez-ugaritzea eta kontrola eta antolatutako krimenaren eta terrorismoaren aurkako borroka. Merkataritza askeko akordio bat bilatuko dugu Mercosurrekin, Kubarekiko Elkarrizketa Politikorako eta Lankidetzarako Hitzarmenean oinarrituz. Halaber, Latinoamerikako eta Karibeko herrialdeekiko konexio sozioekonomiko sakonagoetan inbertituko dugu, bisa erraztuz, ikasleen trukeen bidez, senidetzearen bitartez eta ikerketa-lankidetzaren eta proiektu teknikoaren bidez. Horrez gain, eskualde horretan, Kolonbian egiten ari garen bezala, bake-hitzarmenen negoziazioa eta ezarpena bultzatuko ditugu.

Konektatutako Asia

Konexio zuzena dago Europaren oparotasunaren eta Asiaren segurtasunaren artean. Kontuan hartuta Asiako Asiak Europar Batasunarentzat duen pisu ekonomikoa eta, alderantziz, Asiako bakea eta egonkortasuna gure oparotasunerako aurretiazko betekizuna dira. Ekonomia-diplomazian sakonduko dugu eta gure segurtasun-papera indartuko dugu Asian.

Europar Batasunak Txina inplikatu egingo du zuzenbide estatuaren errespetuan oinarrituz, bai nazio-mailan, bai nazioartean. Planteamendu

koherentea jarraituko dugu Txina eta mendebalderen arteko konexioa bultzatzeari dagokionez, EB-Txina eta ASEM zein EB-Hego-Ekialdeko Asiako Tratatuaren Erakundearen esparruen konektibitate-plataformaren potentziala erabat baliatuz.

Europar Batasunak Txinarekiko merkataritzan eta inbertsioan ere sakonduko du.

“Europar Batasunak Txinarekiko merkataritza eta inbertsioa indartuko ditu, baldintza-berdintasuna, jabetza intelektualeko eskubideen babesa, puntako teknologiaren eremuko lankidetzari handiagoa, erreforma ekonomikoaren gaineko elkarrizketa, giza eskubideak eta klima-ekintza bilatuz.”

Horretarako, honakoa bilatuko du: baldintza-berdintasuna; jabetza intelektualeko eskubideen babes nahikoa; lankidetzari handiagoa puntako teknologiaren eremuan eta erreforma ekonomikoari, giza eskubideei eta klima-ekintzari buruzko elkarrizketa. Horrekin batera, eskualde horretan, Europar Batasunak diplomazia ekonomikoan sakonduko du eta merkataritza askeko akordio handizaleak lortzeko lan egingo du Japonia eta India bezalako kide estrategikoekin, baita Hego-Ekialdeko Asiako Tratatuaren Erakundeko estatu kideekin ere, ahal izatekotan, Europar Batasunaren eta Hego-Ekialdeko Asiako Tratatuaren Erakundearen arteko akordio batera heltzeko.

Era berean, politikoki hobe den ikuspegi bat garatuko dugu Asiarako, Asiako segurtasunean ekarpen praktiko handiagoak egiteko helburuarekin. Gure lankidetzari zabalduko dugu, baita segurtasunari dagokionez ere, besteak beste, Japonia, Koreako Errepublika eta Indonesiarekin. Jarraituko dugu Afganistanen estatu-erakuntzan eta adiskidetze-prozesuetan laguntzen, gure eskualdeko eta nazioarteko kideekin batera. Koreako penintsulan, ez-ugaritzea sustatuko dugu. Asiako ekialdean eta hego-ekialdean, nabigazio askeari eutsiko digu, irmotasunez errespetatuko dugu nazioarteko zuzenbidea, itsasoaren zuzenbidea eta horren arbitraje-prozedurak barne, eta gatazken ebazpen baketsua bultzatuko dugu. Itsasogaitasunak sortzen lagunduko dugu eta ASEANek zuzendutako eskualde-mailako segurtasun-arkitektura bat bultzatuko dugu. Asia zentrolean eta Asiako hego-ekialdean, terrorismoaren eta legez kontrako trafikoaren aurkako borrokaren eta migrazioaren eremuko lankidetzari areagotuko dugu eta konektibitatea sustatu egingo dugu garraioen, merkataritzaren eta energiaren eremuan. Indo-Pazifikoko eta Asiako ekialdeko eskualde guztietan, Europar Batasunak giza eskubideak bultzatuko ditu eta trantsizio demokratikoen alde egingo du, Myanmar/Birmaniaren kasuan bezalaxe.

Lankidetza Artikoan

Hiru estatu kide eta Europako Espazio Ekonomikoki bi kide estatu artikoak direnez, Europar Batasunarentzat, interes estrategikoa da Artikoak tentsio baxuko gunea izaten jarraitzea; hain zuzen ere, badauka lankidetza bat Kontseilu Artikoan, baita behar bezala funtzionatzen duen esparru juridiko bat eta politika zein segurtasuneko lankidetza irmoa ere.

Europar Batasunak horretan lagunduko du gai hauetan gehiago lan eginez: klima-ekintza eta ingurumen-ikerketak; garapen jasangarria; telekomunikazioak eta bilaketa eta erreskatea. Horrez gain, lankidetzazehatza bultzatu egingo du Artikoko estatuekin, erakundeekin, indigenekin eta tokiko erkidegoekin.

3.5 Gobernantza globala XXI. menderako

Arau globalik eta horiek betearazteko baliabiderik gabe, bakea, segurtasuna, oparotasuna eta demokrazia, hau da, gure funtsezko interesak arriskuan daude. Oinarritzat hartzen dituen balioek gidatuta, Europar Batasuna nazioarteko zuzenbidean oinarritutako ordena globalarekiko konprometituta dago, Nazio Batuen Erakundearen Gutunak jasotzen dituen printzipioak barne, bakea, giza eskubideak, garapen jasangarria eta ondasun globaletarako sarbide iraunkorra bermatzen dituztenak.

“Europar Batasuna nazioarteko zuzenbidean oinarritutako ordena globalarekiko konprometituta dago, Nazio Batuen Erakundearen Gutunak jasotzen dituen printzipioak barne. Konpromiso hori egungo sistema babestetik harago doa eta eraldatzeko nahi batean gauzatzen da.”

Konpromiso hori egungo sistema babestetik harago doa eta eraldatzeko nahi batean gauzatzen da Europar Batasunak Nazio Batuen Erakunde indartsu baten alde borrokatuko du, arauetan oinarritutako alde anitzeko ordenaren oinarri gisa. Gainera, nazioarteko eta eskualdeko antolakuntzekin, estatuekin eta estatuak ez diren eragileekin koordinatutako erantzun globalak garatuko ditu.

Erreformatzak

Gobernantza globalarekiko konpromisoa Nazio Batuen Erakundea erreformatzeko irimotasun bihurtu behar da, Segurtasun Kontseilua eta Nazioarteko Finantza Erakundeak barne. Munduko gobernantzarekiko konpromisoa gauzatzeko, Nazio Batuak, Segurtasun Kontseilua barne, eta nazioarteko finantza-erakundeak erreformatzeko erabakia irmoa izan behar da. Europar Batasunak printzipio hauek defendatuko ditu: erantzukizuna, ordezkagarritasuna, ardura, eraginkortasuna eta gardentasuna. Printzipio

horien esanahi praktikoa kasu bakoitzaren arabera garatu egingo da. Jarraituko dugu Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluko kideei eskatzen basakeria masiboak saihesteko edo horiekin amaitzeko esku-hartze irmo eta egokiekin lotutako ebazpen bideragarrien proiektuen aurka ez bozkatzeko.

Europar Batasunak bere ahotsa indartu egingo du alde anitzeko foro guztietan, bereziki, Nazio Batuetan, nazioarteko finantza-erakundeetan eta nazioarteko justizia-antolakuntzetan. Gainera, bere ikusgarritasuna eta kohesioa indartuko ditu. Lan egingo dugu euroguneak gero eta ordezkari baterratuagoa izan dezan Nazioarteko Moneta Funtsean.

Inbertsioa

Nazio Batuen Erakundeetan sinesteak horretan inbertitzea esan nahi du, batez ere, bakea bermatzeko, bitartekaritza egiteko, bakea eraikitze eta giza eginkizunetarako. Europar Batasuna eta bere Estatu Kideak badira Nazio Batuen Erakundeko giza agentzien kolaboratzaile nagusia eta, aurrerantzean, are gehiago inbertituko dute bere lanean. Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politikak neurri handiagoan babes eta osalitzake Nazio Batuen bakea mantentzeko ekimenak, zubi-operazioen, egonkortzeko operazioen edo bestelako operazioen bidez. Europar Batasunak Nazio Batuen bakea finkatzeko jardueretik sinergia bultzatuko du, Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politikaren ezegonkortasun-egoeretan gaikuntza emateko misioen plangintzaren, bilakaeraren eta amaieraren koordinazio handiagoaren bidez.

Egikaritzapena

Europar Batasuna eredugarria izango da eta garapen jasangarriarekiko eta klima-aldaketarekiko konpromisoak ezarriko ditu. Klima-aldaketaren aurkako borrokaren finantziak handituko du; alde anitzeko foroetan klima-gaiak txertatzea sustatuko du; Parisko Akordioan aurreikusitako berrikusteko helburua indartuko du eta energia garbiaren kostua murrizteko lan egingo du. GJHek Cotonúkoaren ondorengo elkarketa-akordioaren konfigurazioa ezarriko dute eta garapeneko politikaren erreforma bultzatuko dute, Europar Batasunaren garapeneko adostasuna barne hartuta.

“Europar Batasuna eredugarria izango da eta garapen jasangarriarekiko eta klima-aldaketarekiko konpromisoak ezarriko ditu.”

Gainera, GJHen aplikazioak aldaketak eskatuko ditu barne- eta kanpo-politika guztietan, elkarketa publiko-pribatuak sustatuz eta Inbertsioen Europako Bankuaren esperientzia gehiago baliatuz, hain zuzen ere, garapen bidean dauden eta errenta ertaina duten herrialdeetan laguntza tekniko emateari eta gaitasunak sortzeari dagokienez.

Sakontzea

Munduko ekonomiarik handiena denez, Europar Batasuna eragile nagusia da munduko merkataritzan eta inbertsioetan.

Hain zuzen ere, eremu horietako arauetan gehiago sakon daiteke. Oparotasuna arauetan eta benetako baldintza-berdintasunean oinarritutako sistema ekonomiko ireki baten menpe dago, diplomazia ekonomikoak are gehiago bultzatuko duena. Merkataritza askeko hitzarmen zabalak bilatuko ditugu Estatu Batuekin, Japoniarekin, Mercosurrekin, Indiarekin, Hego-Ekialdeko Asiako Tratatuaren Erakundearekin eta beste batzuekin ere bai, merkataritza aske globalaren oinarri nagusi gisa. TTIP eta CETA bezalako elkarrekiko onuran oinarritutako akordio handizaleek lagun dezakete nazioarteko arauketa bultzatzen eta kontsumitzaileak zein lan-, ingurumen- eta osasun- eta segurtasun-araudia babesten. Merkataritza-akordioen belaunaldi berrian sartzen dira zerbitzuekin, ekonomia digitalarekin eta lehengaiekin lotutakoak eta horiek zatikapena eta oztopo juridikoak murrizten eta baliabide naturaletarako sarbidea arautzen lagun dezakete. Europar Batasunak ziurtatuko du, merkataritza-akordioak negoziatzen direnean, Munduko Merkataritza Antolakundeak mundu osoko negoziatioetan berebiziko papera berreskuratzea erraztuko dela.

“Gure oparotasuna arauetan eta benetako baldintza-berdintasunean oinarritutako sistema ekonomiko ireki baten menpe dago, diplomazia ekonomikoak are gehiago bultzatuko duena.”

Europar Batasunak sistema ekonomiko ireki eta bidezko bat nahi du eta interes horrekin lotuta dago itsaso-hazkunde eta segurtasun globalerako premia, merkataritzarako eta baliabide naturaletarako sarbiderako berebizikoak diren ozeano- eta itsaso-ibilbide ireki eta babestuak ziurtatuz. Europar Batasunak lagunduko du munduko itsaso-segurtasunean, Indiako ozeanoan zein Mediterraneoan lortutako esperientzian oinarrituz eta aukera berriak bilatuz Gineako Golkoan, Txina Hegoaldeko itsasoan eta Malakako itsasartean. Europar Batasunak, munduko itsaso-segurtasunaren hornitzaile den aldetik, Nazio Batuen Itsasoaren Eskubideen inguruko Konbentzioaren unibertsalizazio eta aplikazio handiagoak sustatuko ditu, gatazkak ebazteko mekanismoak barne. Horrekin batera, sustatuko ditugu itsaso-baliabideen eta dibertsitate biologikoaren kontserbazioa eta erabilera jasangarria, baita ekonomia urdinaren hazkundera ere, lege-gabeziak gainditzeko lan eginez eta ozeanoen gaineko ezagutza zein kontzientziazioa handituz.

Handitzea

Nazioarteko arau, araubide eta erakundeen irismena zabaltzen saiatuko

gara. Suntsipen handiko armen ugaritzea eta horien bidalketa-sistemak, oraindik ere, mehatxu handia dira, bai Europarentzat, bai mundu osoarentzat. Europar Batasunak irmoki babestuko du parte berriak atxikitzea ez-ugaritzeko eta armen kontroleko alde anitzeko araubideetara eta itunetara, baita horien unibertsalizazioa eta erabateko aplikazioa eta egikaritzapena ere. Eskuragarri ditugun baliabide guztiak erabiliko ditugu ugaritze-krisiak ebazteko, Iraneko programa nuklearrean arrakastaz egin genuen bezala.

“Europar Batasunak irmoki babestuko du parte berriak atxikitzea ez-ugaritzeko eta armen kontroleko alde anitzeko araubideetara eta itunetara, baita horien unibertsalizazioa eta erabateko aplikazioa eta egikaritzapena ere.” Eskuragarri ditugun baliabide guztiak erabiliko ditugu ugaritze-krisiak ebazteko, Iraneko programa nuklearrean arrakastaz egin genuen bezala.”

Europar Batasunak aktiboki hartuko du parte esportazioak kontrolatzeko araubideetan; Estatu Kideen material eta teknologia militarrek, erabilera bikoitzeko materiala barne, esportatzeko politikak agintzen dituzten arau komunak indartuko ditu eta hirugarren herrialdeetako esportazioak kontrolatzeko agintaritzei eta armen kontrolerako araubideak betearazten dituzten organismo teknikoek lagunduko die. Era berean, Europar Batasunak nazioarteko zuzenbide humanitarioa, nazioarteko giza eskubideen zuzenbidea eta nazioarteko zuzenbide kriminala babesteko erantzukizuna sustatu egingo du. Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseilua babestuko dugu eta Nazioarteko Zigor eta Justizia Auzitegien eskumena erabat onartzea bultzatuko dugu.

Garapena

Gai globalen mugetan, arauak are gehiago garatu egin behar dira segurtasuna eta ondasun globaletarako sarbide jasangarria ziurtatze aldera. Europar Batasuna zibereragile aurrerakoia izango da, gure aktibo eta balio kritikoak babestuko dituena mundu digitalean, batez ere, Internet global aske eta segurua sustatuz. Gure bazkideekin parte hartuko dugu ziberdiplomaziako ekintzetan eta gaikuntza-jardueretan eta egungo nazioarteko zuzenbidean oinarritutako ziberespazioan erantzukizunez jarduteko akordioak sustatzen saiatuko gara. Alde anitzeko gobernantza digitalaren alde egingo dugu, baita zibersegurtasunari buruzko lankidetzaz esparru global baten alde ere, informazio-fluxu askea errespetatuz. Espazioari erreparatuz, espazioan oinarritutako zerbitzuen autonomia eta segurtasuna sustatuko ditugu eta espazioan jardunbide arduratsuak bultzatzeko printzipioetan lan egingo dugu; horren ondorioz, baliteke nazioarteko jokabide-kode boluntario bat ezartzea. Energiaren eremuan, alde anitzeko mekanismoak bultzatuko ditugu energia-eredu jasangarriak ziurtatzeko, bai berezko politika jasangarriak garatuz, bai energia-kontsumitzaile eta ekoizle nagusiekiko elkarrizketa sakonduz ere.

Osasunari erreparatuz, pandemia globalen prebentzioa, detekzioa eta erantzuna eraginkorrakoak izan daitezten lan egingo dugu. Gainera, arau globalak beharrezkoak dira honakoak bezalako eremuetan: bioteknologia, adimen artifiziala, robotika eta urrunetik pilotatutako sistemak. Hori guztia segurtasun-arriskuak saihesteko eta etekin ekonomikoak jasotzeko. Eremu horietan guztietan, Europar Batasunak dagozkion alde anitzeko foroekiko trukeak sustatuko ditu, alde anitzeko arauketaren mugetako eremuetan arauak eta elkarketak sortzeko prozesuaren buru izateko.

Elkarketak

Europar Batasuna eredugarria izango da gobernantza globalean. Baina ezin du hori bakar-bakarrik egin. Bere gain hartuko ditu agenda zehazteko, komunikatzeko, koordinatzeko eta parte-hartzaileen konektatutako sare batean bitartekari izateko eginkizunak. Lankidetzan arituko da estatu eta antolakuntzekin, baina baita sektore pribatuarekin eta gizarte zibilarekin ere. Gobernantza globalarekin lotutako gai gehienetan, Nazio Batuen Erakundearekin lan egingo dugu, alde anitzeko sistemaren esparrua eta batasunarentzako bazkide nagusia delako.

“Europar Batasunak estatuak ez diren funtsezko eragileetan inbertitu egingo du. Eragile zibikoak, batez ere, giza eskubideen defendatzaileak babesteko eta ahalduntzeko baliabideak indartuko ditugu, gizarte zibil sutsua bultzatuz mundu osoan.”

Horrez gain, Estatu Batuak bezalako beste bazkide nagusi batzuekin, eskualde-antolakuntzekin eta antzeko pentsamoldea duten eta estrategikoak diren Asia, Afrika eta Amerikak bezalako bestelako bazkideekin lan egingo dugu. Halaber, Europar Batasunak estatuak ez diren bestelako funtsezko eragileetan inbertitu egingo du, bereziki, gizarte zibilean. Errepresioa gero eta handiagoa bada ere, gizarte zibil globala hazten ari da eta aktibismo-mota berriak sustatzen ari da. Europar Batasunak baliabideak indartuko ditu eragile zibikoak, batez ere, giza eskubideen defendatzaileak babesteko eta ahalduntzeko, gizarte zibil sutsua bultzatuz mundu osoan.

Gobernantza global eraginkorra egikaritzeko formatua kasuaren arabera alda daiteke. Ziber-eremuari erreparatuz, gobernantza globala estatuen, nazioarteko antolakuntzen, industriaren, gizarte zibilaren eta aditu teknikoen arteko aliantza progresibo baten menpe dago. Itsaso-

multilateralitateari dagokionez, Europar Batasunak Nazio Batuekin eta horren agentzia espezializatuekin lan egingo du, baita OTANekin, gure bazkide estrategikoekin eta Hego-Ekialdeko Asiako Tratatuaren Erakundearekin ere. Ekintza humanitarioari, garapen jasangarriari eta klima-aldaketari dagokienez, Europar Batasuna Nazio Batuekin eta G20rekin elkarlanean arituko da, baita emaile berriei, gizarte zibilarekin eta sektore pribatuarekin ere. Kontraterrorismoari dagokionez, elkarrizketa sakonduko dugu Nazio Batuekin.

Halaber, lankidetzeta-hitzarmen zabalak eraikiko ditugu estatuekin, eskualde-mailako erakundeekin, gizarte zibilarekin eta sektore pribatuarekin, besteak beste, estremismo biolentoari eta terrorismoaren finantzaketari aurre egiteko.

4. Ikuspegitik ekintzara

Aurrera eramango ditugu gure lehentasunak gure sare paregabeak, pisu ekonomikoa eta eskuragarri ditugun tresna guztiak modu koherente eta koordinatu batean mugiaraziz. Hala eta guztiz ere, gure helburuak lortzeko, inbertsio kolektiboa egin behar dugu batasun sinesgarri, sentikor eta koordinatu bat eraikitzeko.

Batasun sinesgarria

Munduarekiko erantzukizuna hartzeko, sinesgarritasuna berebizikoa da. Europar Batasunaren sinesgarritasuna honako guztiaren eskutan dago: gure batasuna, gure lorpen ugariak, gure erakartzeko botere iraunkorra, gure politiken eraginkortasuna eta irmotasuna eta gure balioetarako atxikipena. Europar Batasun indartsuagoa lortzeko, kanpo-politikaren dimentsio guztietan inbertitu behar da: ikerketa eta klima; azpiegiturak eta mugikortasuna; merkataritza eta zehapenak eta diplomazia eta garapena.

“Munduarekiko erantzukizuna hartzeko, sinesgarritasuna berebizikoa da. Mundu hauskor honetan, botere biguna ez da nahikoa.”

Mundu hauskor honetan, botere biguna ez da nahikoa: gure sinesgarritasuna handitu behar dugu segurtasunaren eta defentsaren eremuan. Kanpo-krisialdiei erantzuteko, bazkideak gaitzeko eta Europa babesteko, Estatu Kideek baliabide nahikoak bideratu behar dituzte defentsa-gastura; baliabideak ahalik eta eraginkortasunik handienarekin erabili behar dira eta defentsa-aurrekontuaren % 20 ikerketara eta materialaren erosketara bideratzeko konpromiso kolektiboa bete

“Kontseiluak adostuko duen estrategia sektorialak gehiago zehaztu beharko lituzke estrategia honetatik eratorritako handizaletasun-maila zibil-militarra, eginkizunak, errekerimenduak eta gaitasun-lehentasunak.”

Gaitasunak interoperabilitate- eta homogeneousotasun-mailarik handienarekin garatu behar dira eta, posible denean, Europar Batasuna, OTAN, Nazio Batuak eta bestelako nazio anitzeko ekimenak babesteko baliatu behar dira. Kontseiluak adostuko duen estrategia sektorialak gehiago zehaztu beharko lituzke estrategia honetatik eratorritako handizaletasun-maila zibil-militarra, eginkizunak, errekerimenduak eta gaitasun-lehentasunak. Hori gorabehera, arlo horietako batzuk dagoeneko azpimarra daitezke Europako Kontseiluaren konpromisoer jarraiki.

Lehenik eta behin, Europaren segurtasuna barneko zein kanpoko mehatxuen eta erronken gaineko ebaluazio hobeen eta partekatuen menpe dago. Europarrek segurtasun-inplikazioak dituzten fluxuen monitorizazioa eta kontrola hobetu behar dituzte. Horretarako, inteligentzian, zaintzan eta ezagutzean inbertitu behar da, bereziki, honetan: urrunetik pilotatutako aireontzi-sistemak; satellite bidezko komunikazioak eta espaziorako eta luraren etengabeko behaketarako sarbide autonomoa. Terrorismoaren aurkako borrokari dagokionez, Estatu Kideek lehergailuen, su-armen eta bidaiarien izenen erregistroaren gaineko legeria aplikatu behar dute eta armen mugaz gaindiko detekziorako eta bilaketarako gaitasunean inbertitu. Bigarrenik, europarrek gaitasun digitaletan inbertitu behar dute, Europako espazio digitaleko datuak, sareak eta azpiegitura kritikoak babesteko. Gaitasunak garatu behar ditugu konfiantzazko zerbitzu eta produktu digitaletan eta gure erresilientzia indartzen duten teknologia informatikoetan. Inbertsio eta gaitasun gehiago bultzatu behar ditugu Estatu Kide guztietan, zehazki, lankidetzan oinarritutako ikerketaren eta garapenaren, prestakuntzaren, ariketen eta lizitazio-programen bidez. Hirugarrenik, maila altuko gaitasun militarrei dagokienez, Estatu Kideek ekipamendurik onena behar dute kanpo-krisialdiei erantzuteko eta Europa seguru mantentzeko. Horretarako, lurreko, aireko eta itsasoko erabateko gaitasunak eduki behar dira, besteak beste, tresna estrategikoak.

Gaitasun horietako asko lortzeko eta mantentzeko, Estatu Kideek aurrera egin beharko dute defentsaren eremuko lankidetzarantz, hori arautzat hartuz. Estatu Kideek jarraitzen dute burujabe izaten defentsaren gaineko erabakietan.

“Gaitasun horietako asko bereganatzeko eta mantentzeko, Estatu Kideak defentsa-kooperaziorantz joan beharko dira, hori arau gisa hartuz. Defentsaren eremuko lankidetzarako ikuspegi boluntarioa konpromiso erreal bihurtu behar da. Europako defentsa-industria

jasangarria, berritzailea eta lehiakorra izatea berebizikoa da Europaren strategiaren autonomiarako eta Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politika sinesgarria izan dadin.”

Hala eta guztiz ere, defentsaren inguruko nazio mailako programak ez dira nahikoak gabezia estrategiko horiek gainditzeko. Erreferentziatzko maila kolektiboak lortzetik urrun gaude, adibidez, guztirako gastuaren % 35 lankidetzako kontrataziorako ekipoetan. Defentsaren eremuko lankidetzarako ikuspegi boluntarioa konpromiso erreal bihurtu behar da. Europar Batasuneko eskalan, koordinatutako urteko berrikuspen-prozesu bat burutzea, Estatu Kideen gastu militarreko planak jorratzeko, onuragarria izan liteke koherentzia handitzeko defentsaren plangintzan eta gaitasunen garapenean. Hori OTANen defentsa-plangintzako prozesuarekiko erabateko koherentziaz egin beharko litzateke. Europako Defentsa Agentziak berebiziko papera dauka Gaitasunak Garatzeko Plana indartzeko; izan ere, Estatu Kideen eta batzordearen arteko interfazea da eta Estatu Kideei laguntzen die estrategia honetan azaldutako xede politikoekin lotutako gaitasunen garapenean.

Sistematikoki sustatuko da Estatu Kideen arteko lankidetzaren defentsaren eremuan. Europako Defentsa Agentziaren erreferentziatzko mailen ebaluazio erregularrek parekoen arteko presio positiboa sor dezakete Estatu Kideen artean. Europar Batasunaren defentsaren ikerketa eta teknologiko finantzaketa urte anitzeko finantza-esparruaren bitarteko berrikuspenean islatzen da lehendabizi eta, geroago, hurrengo aurrekontu-zikloko erabateko programa erreal batean; hori oso erabilgarria izango da Europak behar dituen defentsa-gaitasunak garatze aldera.

Europako defentsa-industria jasangarria, berritzailea eta lehiakorra izatea berebizikoa da Europaren strategiaren autonomiarako eta Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politika sinesgarria izan dadin. Horrez gain, hazkundera eta enpleguak bultzatu ditzake. Oinarri teknologiko eta industrialak duen defentsa europar irmo batek barne-merkatu orekatua, funtzionala eta gardena behar du, baita hornidura-segurtasuna eta defentsa-industria egokiekiko elkarrizketa egituratua ere. Gainera, enpresa txiki eta ertainen (ETE) parte-hartzea ziurtatzen bada defentsaren sektorean, berrikuntza eta inbertsioa hobe daitezke etorkizuneko teknologia militarretan.

Erantzuteko gai den batasuna

Gaur egungo munduan, aurreikus dezakegu etorkizuna ezin dela aurreikusi. Horrenbestez, garrantzitsua da gure burua hornitzea azkarrago eta malgutasunez erantzuteko etorkizuneko gertaera ezezagunen aurrean. Batasun harberagoa lortzeko, aldatu beharra dago. Aldaketa behar da diplomazian, Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politikan eta garapenean eta, gainera, kanpo-ekintza eusten duen ezagutza-oinarrian inbertitu beharra dago.

Lehenik eta behin, ekintza diplomatikoa erabat oinarritu behar da Lisboako Itunean. Europar Batasunaren kanpo-politika ez da bakar-saio bat: partitura berarekin jotzen duen orkestra bat da. Gure aniztasuna aktibo ikaragarria da, baldin eta elkarrekin jarraitzen badugu eta modu koordinatuan lan egiten badugu.

Estatu Kideen arteko lankidetzak munduan dugun konpromisoa indar dezake. Goi-ordezkariek estatu kide bat edo lagundu nahi duten eta horretarako gai diren estatu kideen talde bat gonbida lezake, kontseiluaren erantzukizunaren pean, kontseiluaren adostutako jarrerak aplikatzera. Goi-ordezkariek informazio guztia eman beharko dio kontseiluari eta adostutako Europar Batasuneko politiketikiko sendotasuna ziurtatuko du.

“Europar Batasunaren kanpo-politika ez da bakar-saio bat: partitura berarekin jotzen duen orkestra bat da. Gure aniztasuna aktibo ikaragarria da, baldin eta elkarrekin jarraitzen badugu eta modu koordinatuan lan egiten badugu.”

Bigarrenik, Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politika azkarragoa eta eraginkorragoa izan behar da. Europarrak krisialdiei Nazio Batuen Erakundearen Gutuna erabat betez azkar erantzuteko prest egon behar dira. Horretarako, Estatu Kideek bere indarren zabaltzeko gaitasuna eta interoperabilitatea indartuko dituzte, prestakuntzaren eta ariketen bidez. Azkar erantzuteko gaitasuna garatu behar dugu, borrokalari-taldeak hedatzea eragozten duten prozedura-, finantza- eta politika-oztopoei aurre eginez, indarrak sortzean eragin negatiboa dutelako eta Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politikaren operazio militarren eraginkortasuna murrizten dutelako. Aldi berean, jarraitu behar dugu gure misio zibilak garatzen eta Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politikaren marka erregistratua garatzen. Halaber, indarrak sortzea sustatu behar dugu; hedapena azkartu behar dugu eta Europar Batasuneko eskalako curriculumetan oinarritutako oinarrizko prestakuntza erraztuz.

“Azkar erantzuteko gaitasuna garatu behar dugu, borrokalari-taldeak hedatzea eragozten duten prozedura-, finantza- eta politika-oztopoei aurre eginez. Eremu honetan, Estatu Kideen arteko lankidetzak zabaltzeko aukera aztertu behar da. Arrakastatsua bada eta denboran errepikatzen bada, lankidetzak-forma egituratuago batera eramango du, Lisboako Itunaren potentziala erabat baliatuz.”

Erantzuteko gai den Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politikak erakunde-egitura arrazionalizatzeko ere eskatzen du. Indartu behar ditugu plangintza operatiboa eta jarduketa-egiturak.

Halaber, konexio estuagoak ezarri behar ditugu egitura eta misio zibil eta militarren artean, operazio-agertoki berean heda daitezkeela ahaztu gabe. Eremu honetan, Estatu Kideen arteko lankidetzazabaltzeko aukera aztertu behar da. Arrakastatsua bada eta denboran errepikatzen bada, lankidetzaz-forma egituratuago batera eramango du, Lisboako Itunaren potentziala erabat baliatuz.

Hirugarrenik, garapen-politika malguagoa izango da eta gure lehentasun estrategikoekin bat etorriko da. Berresten dugu garapenerako laguntza ofizialaren/nazio-errenta gordinaren % 0,7ra heltzeko konpromiso kolektiboa, betiere Garapenerako Laguntza Batzordearen printzipioei jarraiki. Garapenerako funtsak egonkorrak izan behar dira; hala ere, programazio-zikloak luzeak dira eta horrek Europar Batasunaren babesaren erabilera egokia mugatzen du eta gure ikusgarritasuna eta eragina murriztuz ditzake. Lekuan bertan egiten diren jardueretarako kopuru mugatuen eskuragarritasuna malguagoa izan behar da, batez ere, gatazkak prebenitzeari eta gizarte zibilari laguntzeari dagokienez.

“Garapen-politika malguagoa izango da eta gure lehentasun estrategikoekin bat etorriko da.”

Batzordean, malgutasuna txertatu behar da finantza-tresnetan eta aukera eman behar da urte zehatz batean konprometitzen ez diren funtsak hurrengo urteetan krisialdiei erantzuteko erabili ahal izateko. Horrek finantza-tresnen eta aurrekontu-kapituluen arteko hutsuneak betetzen lagunduko du. Aurrekoarekin batera, bada garaia tresnen kopurua murrizteko aukera aztertzeke, koherentzia eta malgutasuna handitze aldera, garapenera bideratutako kopuru osoa handitzen den bitartean.

Kanpo-ekintza erantzuteke gai izateke, ezagutza-oinarri ona izan behar du. Erresilientziara eta gatazken prebentziara zein ebazpenera bideratutako ikuspegiek egoerekiko sentikortasun-maila handiagoa eskatzen dute. Europar Batasunak inbertitu egingo du Kanpo Ekintzako Europako Zerbitzuan eta hobeto koordinatu egingo ditu erakundeak eta Estatu Kideak. Erronka bat da nazio mailako kultura desberdin guztiak jartzea interes komunen menpe, baina talentuen pilaketa paregabea da guretzat. Eremu horretan sakontzeko, pertsonetan inbertituko dugu, batez ere, lekuan bertan jarduten ari diren horietan. Horretarako, delegazioei beharrezko ezagutzak eskainiko dizkiegu, gai sektorialak eta tokiko hizkuntzak barne. Kontuan hartuko da eskualde horrekin lotutako esperientzia; delegazioen atal politikoak indartuko dira eta langile operatiboek bere ezagutzak modu politikoagoan erabiltzera animatuko zaie.

Horrek esan nahi du emakumezkoen parte-hartzea indartu behar dela kanpo-politikaren inguruko erabakiak hartzeko prozesuan. Europar Batasuneko Gatazken Ohartarazpen Goiztiarrerako Sistemari inbertitu beharko da eta kanpoko konpromiso guztiek gatazkak eta eskubideak kontuan hartzea lortu beharko da. Horrez gain, lan egingo dugu informazioa hobeto trukatzeko eta baterako txostenak egiteko eta analisiak eta erantzunak planifikatzeko hauen artean:

estatuetakoko enbaxadak, Europar Batasuneko delegazioak, batzordearen zerbitzuak, Europar Batasunaren ordezkari bereziak eta Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politikaren misioak. Ideien trukea sustatuko dugu gure eta eskualdeko zein nazioarteko antolakuntzen, gizarte zibilaren, akademiaren, hausnarketa-taldeen eta sektore pribatuaren artean. Hori egingo dugu, bai modu tradizionalen, hau da, elkarrizketaren, lankidetzaren eta babesaren bidez, bai formatu berritzaileekin, hau da, trukeen, langile berrien eta baterako erraztasunen bidez, sisteman daukagun ezagutza eta sormena baliatuz.

Batasun bateratua

Azkenik, kanpo-ekintza gehiago koordinatuko da. Urteetan zehar, urrats garrantzitsuak eman dira horretarako; adibidez, erakunde-berrikuntzak egon dira. Besteak beste, Lisboako Itunean, batzordeko goi-ordezkariaren eta Kanpo Ekintzako Europako Zerbitzuko presidenteordearen eginkizun bikoitza sortu zen. Europar Batasuneko beste erakunde batzuekin lan egiten duen Kanpo Ekintzako Europako Zerbitzu indartsua izan beharko da Europar Batasunak munduan duen eginkizun koherentearen erdigunea. Koherentziaren aldeko esfortzuen artean daude hauek: "krisialdiei aurre egiteko ikuspegi integrala" bezalako politiken berrikuntzak eta garapenerako baterako programazioa. Zehazki, azkenengo hori hobetu beharko da. Gure baterako kanpo-ekintzaren eremu berriak dira, adibidez, energia-diplomazia, kultura-diplomazia eta ekonomia-diplomazia.

"Beharrezkoa da garapenaren inguruko baterako programazioa hobetzen jarraitzea. Gure baterako kanpo-ekintzaren eremu berriak dira, adibidez, energia-diplomazia, kultura-diplomazia eta ekonomia-diplomazia. Europar Batasun oparoagoa lortzeko, koordinazio handiagoa behar da Europar Batasunaren eta Estatu Kideen artean eta Europako Inbertsio Bankuaren eta sektore pribatuaren artean. Koordinazioa indartu behar dugu barne- eta kanpo-politiken eremuan.

Batasuna oparoagoa izan dadin, lehentasun ekonomikoak ezarri behar dira herrialde eta eskualde guztiekiko harremanetan. Gainera, horiek integratu behar dira barne-politiken kanpo-dimentsioetan. Europar Batasun oparoagoa lortzeko, koordinazio handiagoa behar da Europar Batasunaren

eta Estatu Kideen artean eta Europako Inbertsio Bankuaren eta sektore pribatuaren artean. Garapen Jasangarrirako helburuak koherentzia hori katalizatzeko abagunea dira. Horien ezarpenak koherentzia sortuko du gure politiken barne- eta kanpo-dimentsioen artean, baita finantza-tresnetan ere

Aukera ematen digu diru-laguntzak, maileguak eta lankidetzak pribatu-publikoak uztartzeko modu berriak garatzeko. Gainera, Garapen Jasangarrirako Helburuek garapenerako politiken koherentziaren printzipioa bestelako politika-arlo batzuetara zabaltzera eta aplikatzera animatzen gaituzte eta batzordearen zerbitzuen, erakundeen eta estatu kideen arteko baterako analisia eta konpromisoa proposatzen dituzte.

Koordinazioa indartu behar dugu barne- eta kanpo-politiken eremuan. Esaterako, migrazioaren fenomenoak giza eskubideak errespetatzen dituzten politiken multzo orekatu bat eskatzen du, migrazio-fluxuak eta migrazioaren egiturazko arazoak jorratzen dituena. Horrek esan nahi du migrazioari dagokionez garrantzitsuak diren kanpo-politiken zatikapena gainditu behar dela. Zehazki, esfortzu humanitarioen eta garapen-esfortzuen arteko lotura handiagoak garatuko ditugu baterako arrisku-analisiaren bidez eta urte anitzeko programazioaren eta finantzaketaren bidez. Era berean, kanpo-politika eta tresna desberdinak sortuko ditugu, kontuan hartuko dituztenak migrazioak, diplomazia eta Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politika, garapena eta klima, besteak beste. Horrekin batera, horien eta barne-politiken arteko koherentzia bermatuko dugu, mugen kudeaketari, nazio-segurtasunari, asiloari, enpleguari, kulturari eta hezkuntzari dagokienez.

Segurtasunari erreparatuz, terrorismoak, mehatxu hibridoak eta antolatutako krimenak ez dute mugarik. Horren aurrean, beharrezkoa da erakunde-lotura estuagoak sortzea kanpo-ekintzaren eta askatasun, segurtasun eta justiziako barne-espazioaren artean. Lotura horiek estutzeko, kontseiluaren baterako saioak egingo dira eta baterako hausnarketa-taldeak bultzatuko dira Kanpo Ekintzako Europako Zerbitzuaren eta batzordearen artean. Horrez gain, defentsa-politika barne-merkatua, industria eta espazioa barne hartzen dituzten politiketara lotu behar da. Halaber, Estatu Kideen esfortzuak gehiago integratu behar dira: polizia-, justizia- eta inteligentzia-zerbitzuen arteko lankidetzak indartu behar da. Europolen eta Eurojusten potentziala erabat erabili behar dugu eta babes handiagoa eman behar diogu Europar Batasuneko Inteligentziaren Analisisirako Zentroari. Europako datu-baseetatik ateratako inteligentzia elikatu eta koordinatu egin behar dugu eta IKTak, *big data*ren analisia barne, egoeraren gaineko kontzientzia sakonagoaren zerbitzura jarri. Herritarrek babes hobea behar dute, baita hirugarren herrialdeetan ere, zehazki, baterako kontingentzia-planen bidez eta Estatu Kideen arteko krisialdiei erantzuteko protokoloen bidez.

Koordinazioa indartu behar dugu segurtasun- eta garapen-politiken eremuan. Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politikaren gaitasuna sortzeko misioak batzordeak koordinatu behar ditu zuzenbideko

estatuaren eraikuntzaren eta segurtasunaren sektorearekin. Segurtasunaren eta garapenaren aldeko gaitasunen sorkuntza berebizikoa izan daiteke bazkideak ahalduzko eta gaitzeko, bereziki, krisialdiak prebenitzeko eta horiei erantzuteko. Horretarako, Europar Batasunaren finantza-laguntza beharko dute. Bake-politikak trantsizio egokia bermatu behar du, krisien epe laburrerako kudeaketatik epe luzeerako bake-eraikuntzarantz, gatazken zikloan gabeziak saiheste aldera

Prebentziozko bakearekin, erresilientziarekin eta giza eskubideekin lotutako epe luzerako lana lotuta egon beharko da krisientzako erantzunarekin, zehazki, laguntza humanitarioaren, Segurtasunerako eta Defentsarako Europako Politikaren, zehazpenen eta diplomaziaren bidez.

Azkenik, giza eskubideak eta generoarekin lotutako gaiak sistematikoki txertatuko ditugu politika-sektore guztietan eta erakundeetan eta, horrekin batera, koordinazio estuagoa bultzatuko dugu gai digitalei dagokienez. Kanpo Ekintzako Europako Zerbitzuaren eta Batzordearen barruan, horiek bezalako gaien inguruko ezagutza eta kontzientziazioa indartu behar dira. Halaber, erakundeen arteko koordinazioa hobetzen bada, koherentzia bultzatuko da eta jardunbide egokiak hedatuko dira; horri esker, batasuna indartsuagoa izango da eta mundua erresilienteagoa, baketsuagoa eta jasangarriagoa.

Etorkizunerako bidea

Estrategia honen oinarria da batasun indartsuago baten ikuspegia eta handizaletasuna, bertako herritarrentzat eta mundu osoan zehar desberdintasun positiboa eragin nahi eta ahal duena. Orain, ikuspegia ekintza bihurtu behar dugu azkartasunez. Lehenik eta behin, egungo sektore-estrategiak berrikusiko ditugu eta, horrez gain, estrategia tematiko edo geografiko berriak sortu eta ezarri egingo ditugu, hain zuzen ere, estrategia honen lehentasun politikoeekin bat eginez. Lan hori eragile nagusiek berehala adostutako prozedura argiekin eta denbora-esparruekin hasi beharko da. Bigarrenik, Europar Batasunaren Estrategia Globala aldizka berrikusi beharko da, Kontseilu, Batzorde eta Europako Parlamentuarekin kontsultatuz. Urtero, strategiaren egoeraren inguruan hausnartu egingo dugu.

“Orain, ikuspegia ekintza bihurtu behar dugu azkartasunez.”

Horrela, adierazi ahalko dugu non bilatu behar den ezarpen-maila handiagoa. Azkenik, Europar Batasunak eta Estatu Kideek beharrezkotzat jotzen dutenean, hausnarketa estrategikoko prozesu berria abiaraziko da, batasunak garai hauei eraginkortasunez aurre egitea ahalbidetze aldera. Herritarrek benetako batasuna merezi dute, partekatutako interesak sustatzen dituen, erantzukizunez konprometituz eta beste batzuekiko lankidetzan.



European Union
Global Strategy

Esker-onak

Europar Batasuneko Estatu Kide guztiak:

Foreign Ministers

Defense Ministers

Development Ministers

Secretaries General

COREPER

PSC

National Points of Contact

Political Directors

Defence Policy Directors

Security Directors

EUMC

European Commission:

College

Commissioners' Group on External Action

Informal Task Force

EPSC

European Parliament

EU Member States' National Parliaments

Foreign Affairs and Defence Committees

InterParliamentary Conference

European Union Institute for Security Studies (EUISS)

European Economic and Social Committee (EESC)

European Investment Bank (EIB)

Adelphi

Amnesty International

Aspen Institute Italia

Barcelona Center for International Affairs (CIDOB)

Budapest Centre for Genocide and Atrocities Prevention

Bulgarian Diplomatic Institute

BUSINESSEUROPE

Carnegie Europe

Carnegie Washington

Central European Policy Institute (CEPI)

Central European University

Center for European Perspective Friedrich-Ebert-Stiftung

Center for European Policy Studies (CEPS)

Commission of the Bishops' Conference of the European Community (COMECE)

Compagnia di S. Paolo

CONCORD

Council for Security Cooperation in Asia Pacific (CSCAP-EU)

Crisis Management Initiative (CMI)

Danish Institute for International Studies (DIIS)

Egmont

Elcano Royal Institute

Erasmus and Erasmus Mundus Alumni

European Centre for Development Policy Management (ECPDM)

European Council on Foreign Relations (ECFR)

European Leadership Network (ELN)

European Peacebuilding Office (EPLO)

European Policy Centre (EPC)

European Security and Defence College (ESDC)

European Think Tanks Group (ETTG)

European Stability Initiative (ESI)

European Values
EUROPEUM Institute for European Policy
Finnish Institute of International Affairs (FIIA)
Friends of Europe
Hellenic Foundation for European and Foreign Policy (ELIAMEP)
International Centre for Defence and Security (ICDS)
Institut du Développement Durable et des Relations Internationales (ID-DRI)
Institut Français des Relations Internationales (IFRI)
Institute of International and European Affairs (IIEA)
Institute for Development and International Relations (IRMO)
Institute for Political Science and International Relations (ISPRI)
Institute of International Relations (IIR)
International Trade Unions Confederation (ITUC)
Istituto Affari Internazionali (IAI)
Italo-Latin America Institute (IILA)
Jean Monnet Community
Konrad Adenauer Stiftung
Latvian Institute of International Relations
London School of Economics (LSE)
National Defence Institute (IDN)
New Strategy Center (NSC)
NGO Voice
Norwegian Institute of International Affairs (NUPI)
Open Society European Policy Institute (OSEPI)
Polish Institute of International Affairs (PISM)
Stiftung Wissenschaft und Politik (SWP)
Swedish Institute for International Affairs (UI)
The Diplomatic Academy of the University of Nicosia
The German Marshall Fund (GMF)
The Hague Institute for Global Justice
Transparency International
University of Malta

Special thanks to our partners that have contributed with initiatives and ideas: Brazil, Georgia, Japan, Norway, US.

This Strategy wouldn't have been possible without the daily work of the European External Action Service (EEAS), and in particular the Strategic Planning Division, and the tireless dedication and inspiring thinking of Nathalie Tocci.

EuroBasque

Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua

Consejo Vasco del Movimiento Europeo

www.eurobasque.eus



<http://europa.eu/globalstrategy/en>